

Memoria historikoaren lanketa ikasgelan

Sekuentzia didaktikoa eta implementaziorako gida





Editorea

Aranzadi Zientzia Elkartea, Donostia-San Sebastian, 2012.

Koordinatzaileak

Mikel Errazkin Agirrezabala, Aranzadi Zientzia Elkartea (Espainia).

Rosa Martínez Rodríguez, Aranzadi Zientzia Elkartea (Espainia).

Dokumentu hau Aitortu-EzKomertziala-Partekatu Berdin 3.0 lizentziapean dago. Lizentzia honen kopia ikusteko zoaz ondoko helbidera: <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/3.0/> edo gutun bat helarazi ezazu ondoko helbidera: Creative Commons, 444 Castro Street, Suite 900, Mountain View, California.



Dokumentu hau honela aipatu behar da: Errazkin, M., Martinez, R. (koord.), 2012. Sharing European Memories at School: memoria historikoaren lanketa ikasgelan. Sekuentzia didaktikoa eta inplementaziorako gida. Aranzadi Zientzia Elkartea, 2012, eskuragarri: www.memoriesatschool.aranzadi-zientziak.org

Egileak

Dr. Tracy Craggs, Royal Armouries, *Erresuma Batua*.

Mikel Errazkin Agirrezabala, Aranzadi Zientzia Elkartea, *Espainia, Koordinatzailea*.

Prof. Dr. hab. Arkadiusz Marciniak, Poznan-eko Adam Mickiewicz Unibertsitatea, *Polonia*.

Eystein Ellingsen, Stiftelsen Arkivet, *Norvegia*.

Emma King, Museo aholkularia, *Erresuma Batua*.

Rosa Martínez Rodríguez, Aranzadi Zientzia Elkartea, *Espainia, Koordinatzailea*.

Damjana Mustar, Kranj-eko Udal Liburutegia, *Eslovenia*.

Federica Ragazzi, Futura Soc. cons. r. l., *Italia*.

Ingvild Ruhaven, Stiftelsen Arkivet, *Norvegia*.

Nina Svetelj, Kranj-eko Udal Liburutegia, *Eslovenia*.

Massimo Turchi, Futura Soc. cons. r. l., *Italia*.

Dita Urh, Kranj-eko Udal Liburutegia, *Eslovenia*.

Proiektu hau Europako Batzordeak diruz lagundua izan da. Argitalpenaren ardura egileena da. Batzordea ez da hemen hedatutako informazioaren erabileraren arduraduna.

Proiektu zenbakia: 510410-LLP-1-2010-1-ES-COMENIUS-CMP



Education and Training
Education and Culture DG
Lifelong Learning Programme



EACEA
Education, Audiovisual & Culture
Executive Agency

Edukiak

1. Sharing European Memories at School proiektua: Sarrera 1.orr.
2. Nola erabiltzen da SEM@S sekuentzia didaktikoa? 4.orr.
3. Zer ikasiko eta egingo dute ikasleek? 6.orr.
 - 3.1. Eduki kontzeptualak
 - 3.2. Prozedurazko edukiak
 - 3.3. Jarrerazko edukiak
4. Sekuentzia didaktikoa 7.orr.
5. Zeintzuk dira SEM@Sen sekuentzia didaktikoaren helburuak? 9.orr.
 - 5.1. Oinarrizko konpetentziak
 - 5.2. Konpetentzia espezifikoak
 - 5.3. Ikaste-emaitzak
6. Sekuentzia didaktikoaren deskribapena 11.orr.

I. Eranskina: Memoriak nola partekatu

- Europako memorien datu-basea 26.orr.
- Eskola batekin memoriak partekatzea 27.orr.
 - Skype erabiltzeko gomendioak
 - Sare sozialen erabilera

II. Eranskina: Sekuentzia didaktikoaren osaketa

31 orr.

Web orrian eskuragai dauden agiriak (ingelesez)

- Memoria eta identitateari buruzko marko teorikoa
- Kasu-azterketak: SEM@Sen esperientzia pilotuak
- Ikasleentzako galdetegiak (proiektuaren aurretikoak eta ostekoak)

Sharing European Memories at School proiektuaren xedea da memoria historikoa Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan txertatzea, hain zuzen ere, gizarte zientzien ikasgaiari. Memoriaren eta historiaren arteko desberdintasunak aztertuz, iturri historikoen informazioa beste ikuspuntu batekin landu dezake ikasleak. Honela, proiektu honetan, gizarte zientzien ikasgaiari ohikoak diren idatzizko iturrien analisiak ahozko historiako erremintekin osatzea proposatzen da.

Proiektu honen helburu nagusia ahozko historia landuz eta memoria historikoa analizatuz ikasleen oinarritzko konpetentziak garatzea da. Proiektuaren balio erantsiak honako hauek dira:

- Oinarritzko hezkuntza konpetentzien garapena, batez ere pentsamendu kritikoa eta analitikoa, ikasleen autonomia eta taldean lan egiteko gaitasunak
- iraganak gure egungo gizartearen nola eragin duen hobeto ezagutzea eta hiritartasunaren kontzientzia hartzea
- ikasleak informazio iturrien lanketan trebatzea, beraientzat motibagarria izan daitekeen metodologia bat landuz
- ikaste-prozesua lehenesten duen metodologia aktiboa garatzea
- ikasleek ulertzea historiaren kontakizuna ez dela bat eta bakarra. Aitzitik, kontakizun anitzez eta konplexuez osatuta daudela iraganaren interpretazioak
- ikasgelan ahozko lekukotasunekin lan egiteko aukera eskaintzea
- belaunaldi ezberdinetako komunitate bateko kideen arteko komunikazioa indartzea eta eskola komunitatearen parte hartzea sustatzea
- historiaren eta gizarte-zientzien ikuspuntu globalizatzailea eta integratzailea garatzea
- museoetara edota memoria-lekuetara irtenaldiak egitea, ikasleek haien ingurunea hobeto ezagutu dezaten.

Proiektuaren sekuentzia didaktikoak bost ataza ditu:

- **1. ataza:** memoria eta historia kontzeptuen eta haien arteko desberdintasunen analisisa
- **2. ataza:** aztertutako gertakari historikoak bizi izan zituzten gizabanakoak elkarrizketatzea
- **3. ataza:** aurrez egindako elkarrizketak analizatzea, testuinguru historikoa, gertakariaren kausak eta orainaldiko ondorioak eta gertakariak eta iritziak erlazioan jarri
- **4. ataza:** pentsamendu kritikotik abiatuta, aztertutako memoriak eta informazio historikoa erlazioztatzen dituen sormenezko lan bat burutzea
- **5. ataza:** beste ikastetxe batzuetan landu diren esperientziak ezagutzea eta ikastetxe hauekin sormenezko lanak, jasotako materialak eta esperientzia pertsonalak partekatzea.

Proiektu honetako esperientzia pilotuen balorazioak oso positiboak izan dira. Irakasleek oso baliagarritzat jo dute proiektua; haien iritzian, ikasleek aitzinean aipatutako konpetentziak garatu dituztelako. Eta ikasleek, haiek egindako lanaz gozatu egin dute eta oso motibagarritzat jo dute egindakoa.

Sekuentzia didaktikoaren beste balio erantsia, bere izaera europarra da. Europar jazotako beste gertakari historikoen eta haien memoriak ezagutzea ahalbidetzen baitu proiektuak. Jarduera hau sostengatzeko europar memoriaren datu-base bat sortu da. Aipatu baliabide hori dokumentu honetan, aurreraxeago deskribatuko da



Esperientzia pilotuetan jasotako iritziak

Irakasleak

"Ikasleek gozatu egin dute, taldeetan ondo egin dute lan eta historia eta memoria erlazioan jartzeko ikerlanak burutzean, erabakiak hartzen trebatu dira." Euskal Herria.

"Beti nabil ikasleen interesa sustatzen duten material egokiak bilatzen. Proiektu honetan dauden baliabideak oso aproposak direlakoan nago" Erresuma Batua.

"Proiektu honetan ikasleak jabetu dira historia ez dela liburuetan agertzen den kontakizun soila. Eta horrek ikasleen interesa sustatzea ahalbidetu du!" Italia.

"Berritzailea da eta asko gustatu zitzaizen metodologia nire ikasleei." Norvegia.

"Bai metodologiak eta baita diseinatutako jarduerak ere, pena merezi dute. Emaitza esanguratsuak ematen ditu" Polonia.

"Sarritan eskola curriculumak oso mugatzaileak dira. Uste dut ikaste-irakaste prozesuetan metodologia eta gai anitzak landu beharko genituzkeela. Gainera, gertakari historikoen azterketarako ahozko lekukoek testigantzak jorratzeak ikasle gehienak asko motibatu ditu." Eslovenia.

Ikasleak

"Edukiak liburuetan irakurrita ikasi beharrean, gudan parte hartu zuten pertsonekin egon gara, hori guztia benetan bizi izan zutenekin alegia. Askoz interesgarriagoa izan dela deritzot. Azken finean, gauza ezberdin eta anitzak egin ditugu eta historiako ohiko klase batean ezagutuko ez genukeen jendea ezagutu dugu." Erresuma Batua.


"Nire familia elkarrizketatzea eta nire guraso eta aiton amonen bizitzei buruz gehiago jakitea gustatu izan zait bereziki." Euskal Herria.

"Zoragarria eta dibertigarria izan da proiektuan parte hartzea, lan egiteko era berri bat izan delako." Norvegia.

Txosten honetan gizarte zientzietako edota historiako klaseetan SEM@S-en sekuentzia didaktikoa implementatzeko orientabideak eta gomendioak ematen dira. Baina zenbait museo-tako hezkuntza jardueretarako ere egokia izan liteke eskuarteko proposamena. Bertan jasotzen diren jarduerak eta denboralizazioa, gutxi gora beherakoak dira, eskolaren testuinguruaren arabera egokitu daitezkeenak. Txosten honetan, SEM@S proiektuan aurrera eramandako zazpi esperientzia pilotuetan jasotako ideiak eta gomendioak jasotzen dira. Baita proiektuaren web orrian eskuragarri dauden material osagarrien erreferentziak ere:

<http://memoriesatschool.aranzadi-zientziak.org>.

Sharing European Memories at School - SEM@S Comenius multilateral programako proiektu bat da, Europako Batasuneko Etengabeko Formazio programak finantzatutakoa. Proiektuak bi urtetako iraupena izan du, 2011ko urtarilaren eta 2012ko abenduaren artean. Behean aipatzen diren erakundeen parte hartzeaz gain, hainbat jakintza arlotan espezialistak diren adituek eta arituek haien laguntza eskaini dute, hau da, pedagogoak, historialariak, gizarte zientzialariak, hezkuntza agintariak, museoetako heziketa sailtako langileak,...



Parte-hartzaileak

Koordinatzailea



Aranzadi Zientzia Elkartea · www.aranzadi-zientziak.org
Donostia (Euskal Herria)

Bazkideak



Futura · www.cfp-futura.it
Bologna (Italia)



Stiftelsen Arkivet · www.stiftelsen-arkivet.no
Kristiansand (Norvegia)



Adam Mickiewicz Unibertsitatea · www.amu.edu.pl
Poznan (Polonia)

MESTNA KNJIŽNICA KRANJ
KRANJ CITY LIBRARY

Kranj-eko Udal Liburutegia · www.kr.sik.si
Kranj (Eslovenia)



Royal Armouries · www.royalarmouries.org
Leeds (Erresuma Batua)

2 Nola erabiltzen da SEM@S sekuentzia didaktikoa?

1 Nori zuzendua dago?

Hezkuntza sistema eta curriculumaren arabera, DBH-ko edo Batxilergoko ikasleei begira osatuta dago sekuentzia didaktikoa. 14 eta 18 urte bitarteko ikasleekin erabili ahal izateko nahikoa malgutasuna du sekuentzia didaktikoak.

2 Zer da memoria historikoa?

Jendarte batek bere iraganetik zer eta nola oroitzen duen da. Hau da, bere iraganaldiaren zein irudi gizarteratu eta eraikitzen duen; hurrengo belaunaldiei jendarte horren identitatearen osagarri bezala transmitituko diena. Jendartearentzat esanguratsuak diren gertakari, leku, testu, objektu eta ikurren multzoa da beraz. Memoria gizarte egitate bat da, oraina iraganeko elementuak berreraikiz osatzen duena: kontzeptu ezberdinak interpretatuz, identitatea sortuz, aldaketa sozialak ahalbidetuz, iraganeko gertakariei zilegitasuna emanez, komunitateko balioetan heziz... Giza taldeek kolektiboki gogoratzen dute tradizioak sortaraziz, iraganaldia gogoratzen duten ekimenak antolatuz, ospakizunak eginez, egutegiak finkatuz, erritoak gauzatuz... Era berean, memoria historikoak dialektika, tirabira, gatazka, elkarrekintza eta negoziaketa sozialen emaitza dira. Memoria baliabide erretoriko, ideologiko, identitario eta politikoa ere bada, dela boterea erabiltzeko, dela hura kritikatzeko, dela hura zalantzan jartzeko; edo bestela, haren aurrean tinko irauteko.

3 Zergatik memoria?


SEM@S sekuentzia didaktikoaren ardatza ahozko historiaren bidez memoria historikoa analizatzea da. Memoriaren kontzeptuarekin lan egitea, gertakariak eta iritziak bereizten trebatzeko eta gertakari historikoan kausa aniztasuna ulertzeko lagungarria izan daiteke ikasleentzat. Ahozko iturrien analisiak, ikaslea gizon-emakumeen, senitartekoen edo talde ezberdinen esperientziatar hurbiltzea ahalbidetzen du. Haien memoria historikoaren parte ere badenaren kontzientzia hartzen dute ikasleek. Era berean, ikasleak haien herrietara edo komunitatea osatzen duten herritarretara gehiago hurbilarazten ditu. Gisa honetan, erabilpen erabat praktikoa ematen zaio ezagutza historikoari.

4 Zer nolako ikaskuntza-irakaskuntza ikuspegia lantzen da?

Ikasleengan zentratuta dagoen ikaskuntza aktiboan oinarrituta osatu da sekuentzia didaktiko hau. Hau da, ikasleak bere ezagutzak eraikitzen ditu, horretarako ikaskuntza prozesuan zehar erabakiak hartu eta ikerketa galderei erantzunak bilatzen ditu. Proiektu honetan, irakaslearen rola ezagutzen transmisore baino ikaste-prozesuaren bideratzailearena da. Gisa honetara, ikasleen kompetentzia orokorrak garatzea ahalbidetzen da.

5 Zenbat ordutako sekuentzia da?

Jatorrizko sekuentzia didaktikoa 20 ikastordurako diseinatuta dago. Alabaina, eskolaren testuingurura eta beharrianetara erabat moldagarria da.



6 Zein leku betetzen du gizarte zientzien curriculumean?

Gizarte zientzietako ikasgaian erabat txertagarria da. Txosten honetan Euskal Curriculuma aintzat hartuta, Euskal Herriko eskoletan txertagarria izan daitekeen egokitzapena atxikitzen da.

7 Zein gai landu daiteke?

Elkarrizketetan eta hauen analisisan oinarritzen den proposamena den heinean, bizirik dauden lekukoak aintzat hartzen dituen gaia edo egoera litzateke egokiena. Ahozko lekukoekin lan egiteak balio erantsi anitz eskaini liezazkioke ikasleari, hala nola, belaunaldi ezberdinen arteko komunikazioa berregitea, ikasleen garapen emozionala edo enpatia lantzea; baita identitate pertsonalaren eta kolektiboaren eta gaitasun sozialen garapena ere.

Zuzeneko lekukoekin lan egitea lehenesten da. Dena den, aukeratutako garai historikoa bizi izan zuten pertsonen bigarren edo hirugarren mailako oinordekoek ere transmititu ahal dituzte aztergai den garaiko memoria indibidual, kolektiboak edo historikoak. Esate baterako, Erresuma Batuan eta Italian inplementatutako esperientzi pilotuetan, II Mundu Gerra landu zen; ez soilik gerra bizi izan zuten pertsonekin, baita haien seme-alabekin ere. Eta emaitza esanguratsuak erdietsi ziren.

8 Ikuspegi inter-curricularra edo multi-curricularra lantzen da?

Oinarrizko konpetentziak garatzera bideratutako sekuentzia didaktikoa den aldetik (pentsamendu kritikoa, talde lana, erabakiak hartzea, ikaskuntza autonomoa, etab.), ikuspegi inter-curricularra lantzen dela deritzogu. Alabaina, posible da ikuspegi multi-curricular bat ere izatea. Horretarako sekuentzia didaktikoaren jarduera ezberdinak gainontzeko ikasgaietan landu beharko lirateke. Txosten honetan, proiektua gizarte zientzietan ez ezik, beste ikasgaietan lantzeko gomendioak ere ematen dira.

9 Beharrezkoa al da eskola batekin kontaktuan jartzea memoriak partekatzeko?

Proiektuan SEM@S sekuentzia didaktikoa inplementatzean materialak eta informazioa biltzen dituen Europako memorien datu-base bat sortu da. Ez da beharrezkoa hortaz, ikasleek Europako beste herrialdetako memoriak ezagutzeko sekuentzia didaktikoa erabiltzen ari den eskola batekin harremanetan jartzea. Dena den, esan beharra dago, beste herrialde batzuekin kontaktu zuzenean jartzea oso esperientzia positiboa dela ikasleentzat. Txostenean, ikasleen lanak partekatzeko eskola bat nola topatu eta eskola horrekin memoriak nola partekatu inguruko hainbat ideia eta gomendio jasotzen dira.

3 Zer ikasiko eta egingo dute ikasleek?

Sekuentzia didaktikoak honako edukiak lantzen ditu:

3.1. Eduki kontzeptualak

- Gertakari edo garai historiko jakin baten inguruko informazio historikoa ulertzea
- Memoriaren kontzeptua, bere transmisioa eta eraikuntza ulertzea
- Gertakari edo prozesu historiko baten historiaren eta memoria historikoaren arteko desberdintasunak analizatzea
- Ikerketa historiko bat aurrera eramateko iturri desberdinak ezagutzea, adibidez, museoetako elementuak edo jatorrizko agiriak
- Oinarrizko elkarrizketa teknikak ezagutzea
- Bizirik dauden lekukoak elkarrizketatzea eta hauek ahalbidetutako ebidentzia historikoak jaso ondoren, horiek analizatzea
- Europako identitate ezberdinei buruzko oinarrizko ezagutzak barneratzea
- Memoria indibidualak eta kolektiboak egungo mundua ulertzeko izan dezaken ekarpenaz jabetzea.

3.2. Prozedurazko edukiak

- Zuzeneko lekukoak edo memoriaren bigarren mailako transmisoreak elkarrizketatzea
- Burutu behar duten ikerketarako behar dituzten elkarrizketak grabatzeko teknologia multimediala erabiltzea
- Aukeratutako gaiarekin erlazioa duten teoria nagusiak identifikatzea
- Ikasleek ikertuko duten gaiaren inguruko memoria historikoa nola sortu eta eraiki den identifikatzea
- Sormenezko lan bat egitea informazio historikoa eta memoriak ikuspuntu kritiko baten bidez aztertuz
- Sormenezko lanak eta esperientziak beste eskolekin partekatzea.

3.3. Jarrerazko edukiak

- Ikasleek haien hiriaren edo eskualdearen iraganaz jabetzea eta Europa mailako beste gertakari batzuekin alderatzea
- Jatorri ezberdineko pertsonekin harremanetan jartzeko gaitasuna garatzea
- Taldean lan egiteko, ikuspegi kritikoak eta erabakiak hartzeko konpetentziak garatzea
- Ikasleek haien ikaste prozesuaren dinamizatzailerak direla jabetzea
- Belaunaldi ezberdinetako kideen arteko komunikazioa eta enpatia bultzatzea
- Hiritartasun aktiboaren eta komunitatearen parte izatearen sentimendua garatzea.

HASI AURRETIK

Jarduera	Azalpena	Iraupena
Proiektuaren aurkezpena	Proiektuaren aurkezpena (helburuak, jarduerak eta ebaluazioa) eta ikasleen aurrezagutzak aztertzeko jardura	Ordu 1

1. ATAZA: KONTZEPTU OROKORRAK

Jarduera	Azalpena	Iraupena
Testuinguru historikoa	Aztertuko duten prozesu edo gertakari historikoaren testuingurua lantzea	Ordu 1
Memoria kontzeptua	Memoria kontzeptua, nola transmititzen eta eraikitzen den aztertzea	Ordu 1
Historia eta memoria	Ikertuko duten gaiaren memoria eta historiaren arteko ezberdintasunak identifikatzea	2 ordu

2. ATAZA: AHOZKO LEKUKOTASUNAK

Jarduera	Azalpena	Iraupena
Elkarrizketa tekniken formazioa	Oinarrizko elkarrizketa tekniketan trebatzea.	Ordu 1
Lekukoaren testuingurua eta galdetegiaren prestaketa	Ikasleek elkarrizketatuko duten lekukoaren testuingurua aztertzea eta elkarrizketa gidoia prestatzea	Ordu 1
Elkarrizketak	Lekukotasunak jasotzea	2 ordu

3. ATAZA: ANALISIA

Jarduera	Azalpena	Iraupena
Elkarrizketen analisisa	Elkarrizketaren analisisa	2 ordu
Historia eta memoria konparatzea	Ikergaian historia eta memoria konparatzea	2 ordu

4. ATAZA: SORMENEZKO LANA

Jarduera	Azalpena	Iraupena
Sormenezko lana	Informazio historikoa eta memoriaren analisi kritikoa lantzen dituen sormenezko lana egitea	5 ordu

5. ATAZA: EUROPAKO MEMORIA PARTEKATZEA

Jarduera	Azalpena	Iraupena
Partekatzea	Materialen, sormenezko lanen eta bizipen pertsonalen bitartez, beste eskolek izandako esperientziak ezagutzea eta partekatzea	2 ordu



5 Zeintzuk dira SEM@S-en sekuentzia didaktikoaren helburuak ?

SEM@Sen helburua ondoren agertzen diren oinarritzko kompetentziak, kompetentzia espezifikoak¹ eta ikaste emaitzak lantzea da:

5.1. Oinarritzko Kompetentziak

OK1: Kompetentzia sozialak eta hiritartasunekoak: ikasleak bere herri edo hirian, herrialdean, Europan eta munduan gertatzen denaren inguruko ezagutza izatea

OK2: Ikasten ikasi: ikaslea norberaren ikaskuntza-prozesuaren eraikitzaile izatea

OK3: Ama-hizkuntzaren komunikazioa / atzerriko hizkuntzan komunikazioa

OK4: Kompetentzia digitala: IKT-en erabileran kompetente izatea

OK5: Kontzientzia kulturala garatzea.

5.2. Kompetentzia Espezifikoak

KE1: Gizarte- eta historia-informazio iturriak bilatzean eta erregistratzean pentsamendu kritikoa garatzea

KE2: Jasotako informazioaren lanketan pentsamendu analitikoa garatzea

KE3: Gizarte-aldaketa historiko baten prozesua ikertzerakoan sormenezko pentsaera garatzea

KE4: Taldeko lana planifikatzen eta haren jarraipena egiten trebatzea

KE5: Ikaslea bere ikaskuntza autonomoan trebatzea

KE6: Ikasleek erabakiak hartzeko kompetentzia garatzea

KE7: Ingelesezko ahozko adierazpena hobetzea

KE8: Ikerketa proiekturako burutu beharreko elkarriketak grabatzeko teknologia digitala erabiltzea.

5.3. Ikaste-emaitzak

IE1: Irakasleak proposatutako iturri historikoen eta sozialen (jatorrizkoak eta bigarren mailako iturri bibliografikoak); estatistikoen (ekonomikoak eta demografikoak) eta IKT baliabideen artean, banaka zein taldean, burutu behar dituzten lanetarako egokiak diren informazioak bilatzea eta erregistratzea

IE2: Aktore sozialak elkarriketatzea eta informazio hori iturri dokumentalekin modu kritiko eta kontrastatuan lantzea; gertaerak eta iritziak bereiziz eta informazio kontrajarriak eta osagarriak testuinguru historikoan eta sozialean analizatuz

IE3: Memoria historiko eta historiaren arteko desberdintasunak aztertzea, eragile ezberdinen arteko harremana eta kausalitate anitza kontutan hartuz, prozesu historikoaren alderdi desberdinak aztertuz, taldeko lan baten bitartez

IE4: Taldean burutu beharreko ikerketa-lana planifikatzea, lanen banaketa egitea, lanaren jarraipena egitea eta ebaluazioa burutzea

IE5: Taldean egindako lana partekatzea, ikerketa IKT-en bitartez atzerriko ikasleei azalduz

IE6: Jasotako informazioan (lekukotasunak, bibliografia, argazkiak...) oinarritzen den sormenezko lan bat egitea (narrazio digitalak, aurkezpenak...).

¹Hezkuntza kompetentziak dira ikasleak jakin, egiten eta erabiltzen jakin behar dituen ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak; hezkuntza formaleko etapa bakoitzaren amaieran ez ezik; etapa horren ondoren edo bizitzan zehar etengabe ikasten jarrai dezan; etorkizun profesionalean edo eguneroko bizitzan burutu beharreko egoera konplexuetan eraginkortasunez jarduteko (Cedefop, 2004, Europako Batzordea, 2006a).

Informazio gehiago: http://ec.europa.eu/dgs/education_culture/publ/pdf/ll-learning/keycomp_es.pdf

Ondorengo taulan proiektuko oinarrizko kompetentziak, kompetentzia espezifikokoak, ikaste emaitzak eta jarduerak erlazioan jartzen dira:

Oinarrizko Kompetentziak		OK1: Kompetentzia sozial eta hiritasunekoak					OK2: Ikasten ikasi			OK3: Komunikazioa ama- eta atzerriko hizkuntzan	OK4: Kompetentzia digitala	OK5: Kontzientzia kulturala
Kompetentzia Espezifikokoak		KE1: Pentsamendu kritikoa	KE1: Pentsamendu kritikoa	KE2: Pentsamendu analitikoa	KE2: Pentsamendu analitikoa	KE3: Sormenezko pentsaera	KE4: Talde-lana	KE5: Ikaskuntza autonomia	KE6: Erabakiak hartzea	KE7: Ahozko komunikazioa	KE8: IKTen erabilera	
Ikaste-Emaitzak		IE1: Informazioa bilatzea eta erregistratzea	IE2: Aktore sozialak elkarriketatzea eta informazioa konparatzea	IE3: Historia eta memoriaren arteko ezberdintasunak analizatzea	IE4: Taldean burutu beharreko ikerketa-lana planifikatzea, lanen banaketa eta jarraipena egitea eta ebaluazioa burutzea		IE5: Taldean egindako lana partekatzea, ikerketa IKTen bidez atzerriko ikasleei azalduz		IE6: Jasotako informazioan oinarritzen den sormenezko lan bat egitea			
Ataza	Jarduera											
1.Kontzeptu orokorrak	1.1.Hasi aurretik											
	1.2.Testuinguru historikoa	X		X								
	1.3.Memoriaren kontzeptua	X										
	1.4.Memoria eta historia	X		X								
2.Elkarrizketa	2.1.Elkarrizketa-teknikak		X	X			X					
	2.2.Elkarrizketaren prestaketa		X	X			X					
	2.3.Elkarrizketa		X	X			X					
3.Analisia	3.1.Elkarrizketen analisia			X			X					
	3.2.Memoria eta historia konparatzea			X			X					
4.Sormenezko lana	4.1.Sormenezko lana						X					
5.Memorien partekatzea	5.1.Memorien partekatzea						X		X		X	

6 Sekuentzia didaktikoaren deskribapena

Hasi aurretik

PROIEKTUAREN AURKEZPENA (ordu 1)

Helburua

Proiektuaren aurkezpena (helburuak, jarduerak eta ebaluazioa) eta ikasleen aurrezagutzak aztertzeko jarduera.

Proposatutako jarduerak

Garrantzitsua da egingo dutenaren ikuspegi orokor bat izatea ikasleek: zer den beraiegandik espero dena eta nola ebaluatuko den beraien ikerketa-lana.

Proiektua gela baten baino gehiagotan egingo bada, parte hartuko duten ikasle guztientzat komuneko aurkezpen bat antolatu daiteke. Oso garrantzitsua da ikasleen aurrezagutzak aztertzeko ariketa bat burutzea; ikaskuntza prozesua antolatzeko eta ebaluaziorako oinarri bat izateko. Proiektuak ikasleengan izan duen inpaktua neurtu nahi bada, une egokia da aurrezagutzen galdetegi baten burutzeko. Proiektuaren amaieran bigarren galdetegia pasa beharko litzateke. Esperientzia pilotuetan erabilitako ereduak web orrian daude eskuragai (<http://memoriesatschool.aranzadi-zientziak.org>).

GOMENDIOA

Saiatu ahalik eta erakargarrien egiten aurkezpena, ohiko klaseengandik desberdinduz (ikasleak gelatik kanpo ateratzen, multimedia baliabideak erabiltzen...). Modu honetan, ikasleak motibatuak sentituko dira proiektu berriarekin.

1. Ataza: Kontzeptu orokorrak

1. JARDUERA: TESTUINGURU HISTORIKOA (ordu 1)

Helburua

Aztertuko duten prozesu edo gertakari historikoaren testuingurua lantzea.

Proposatutako jarduerak

Aukeratutako prozesu historikoaren testuingurua lantzeko ideia batzuk proposatzen dira ondorengo lerroetan. Gutxi gora behera ordu bete irauteko pentsatuak daude eta ikaskuntza aktiboko metodologian oinarrituta daude.

1. Jarduera: Ardatz kronologikoa.

Prestakuntza:

- Aukeratutako garaia kronologikoki zatitu 5-7 garaitan
- Gertakizun garrantzitsu bat identifikatu garai bakoitzean, herri, herrialde eta Europa mailan. Aukeratu hiru horien artean bat sakontasunez aztertzeko. Gertakari bakoitzeko horma-irudi bat sortu (A4-A5 tamainakoa).
- Egiozu marko gorri bat ikasleek erabiltzea nahi duzun horma-irudiari.

- Garai historikoa aztertze erabil dezaketen informazio iturri batzuk prestatu (testu liburuak, web orriak)
- Paper biribilki bat beharko dugu ikasleek lerro kronologikoa egiteko. Garai ezberdinetan zatitu eta lerroak erabili aztertutako maila ezberdinak aztertze (herria, herrialdea eta Europa). Adibidez, II Mundu Gerrarako:

	1940	1941	1942
Herriko gertakari historikoa			
Herrialdeko gertakari historikoa			
Europako gertakari historikoa			

Klasean:

- 4-5 ikasleko taldetan banatu gela
- Talde bakoitzak gelako horma baten jarriko dugun ardatz kronologikoan kokatu behar dituen hiru txartel izango ditu
- Gorriz nabarmenduta dagoen txartelaren gaia sakontasunez aztertua eta klase bukaeran aurkeztua izango da
- Ardatz kronologikoa beteta dagoenean, talde bakoitzak txartel gorriko gertakari historikoaz zer ikasi duen aurkeztu beharko du. Gelak, ardatz kronologikoa erabiliz, egindako lana laburbildu egin beharko du. Horretarako, ikasleek, ondoko gaien arteko loturak identifikatuko dituzte:
 - herriko, herrialdeko eta Europako gertakari historikoak
 - maila geografiko bakoitzean kokatzen diren gertakari historikoak iraganaren eta orainaldiaren artean.
- Posible bada, ardatz kronologikoa gelan geldituko da erreferentzi gisa proiektuak irauten duen artean.

GOMENDIOA

Ikasleek beraien ardatz kronologikoak sortzeko hainbat tresna digital daude eskuragarri: <http://www.timetoast.com> eta <http://timerime.com>

2. Jarduera: Iturriak azaltzen.

- Irakasleak garaiko iturriekin osatutako 3 talde prestatuko ditu (ikasle bakoitzeko bat eta gaiari buruz aukeratutako gai bakoitzeko bat)
- Materialak banatu eta eman 5-10 minutu ikasleek hauek irakurri eta testu liburuak kontsultatzeko, banaka planteatu izan zaizkien galderei erantzuna eman diezaieten
- Ikasle bakoitzak bere galdera eta erabilitako materiala azaldu beharko die gainerako ikasleei:
 - a. Banan-banan (1. gaia)
 - b. Talde txikitik (2. gaia)
 - c. Gela guztiaren aurrean (3. gaia).
- Bukaeran, gelakideen artean hausnarketa ariketa bat burutuko dute. Horretarako ondoko galderak erantzun dira: zertan dira desberdinak iturriak? Nola aldatu du gertakarien gainean zenuen ikuspegia iturri gehiagoren ezagutzak? Zeintzuk kontraesan hauteman dituzue iturrien artean? Zein da zure iritzia iturrien fidagarritasunari buruz?

2. JARDUERA: MEMORIAREN KONZEPETUA (ordu 1)

Helburua

Memoria kontzeptua, eta memoriak nola transmititzen eta eraikitzen diren lantzea.

Proposatutako jarduerak

Hurrengo ariketa memoriak indibidualak eta kolektiboak nola eraikitzen diren eta elkarren artean duten erlazioa azaltzeko proposatzen da. Ordu bete irauteko pentsatua dago eta ikaskuntza aktiboko ikuspegiarekin diseinatu da ariketa hau.

1. Jarduera gelan landu aurretik ikasleei eskatu beharrekoa:

- Klase-kideek partekatu zuten gertakari baten oroitzapena bat gogoratzea (irteera bat, kurtso bukaerako jai bat) eta gertakari horretaz gogoratzen duten guztia idaztea
- Hiri, eskualde edo estatuko gertakari edo egun sinboliko baten inguruan beraien memoria partekatzea eskatzea guraso edo aiton amonei: zer egin edo sentitu zuten egun hartan? Zer gogoratzen dute?

2. Borobil batean eserarazi ikasle guztiak. Jarduera hasten duen ikasleak hari-mataza bat izango du eskutan eta beste gelakideei elkarrekin adostutako gertakariaren inguruan gogoratzen duena azalduko die. Bukaeran, hari-mataza pasako dio beste ikasle bati, gertakari beraren beste oroitzapen bat gogoratuko eta partekatuko duen beste ikasle bati hain zuzen ere. Jarraian, beste ikasle bati pasako dio hari-mataza, honek ere bere oroitzapenak gogoratuko dituelarik. Modu honetan, ikasle guztiek banakako esperientziak partekatzen dituzten heinean, harizko sare bat sortuko dute. Horrela, hari sare horrek memoria kolektiboa metaforizatuko du.

3. Behin sarea osatuta, hari punta bat eskuartean duen ikasleak herrialdearen memoria historikoaren helduleku sinbolikoa den gertakariari bati buruz bere guraso edo aiton amonek helarazi dien oroitzapen bat azalduko du. Hari-matazan bildu ahala, beste ikasle bati pasatuko dio eta honek gauza bera egingo du. Hariak hari-mataza itxura hartu ahala, ikasleek bizi izan ez zuten gertakari horren memoria historikoa nola eraikitzen den gogoeta egin ahaliko dute.

GOMENDIOAK

- Hari-matazaren erabilera hautazkoa da, baina esanguratsua izan liteke. Gertakari baten inguruan sortzen diren memorien eta pertsonen arteko harremanen artean dagoen sarea eta elkar harremana ikusten lagunduko baitie ikasleei. Borobilean eserita egoteak, ilaratan egon beharrean, oroitzapen pertsonalen kontakizuna errazten du; giro lasaigo bat sortzen delako
- Eztabaidatzen ari diren gertakari historikoaren inguruko jatorrizko agiriak baldin badituzte (argazkiak, dokumentalak, etab.), baliabide aproposak izan daitezke ariketa osatzeko
- Memoriaren kontzeptuan sakondu nahi bada *Memory and Identity. An overview* txostenak proiektuaren marko teorikoa azaltzen du. Bertan, memoriaren kontzeptuari eta honek identitatearekin duen harremana aztertzen da.

Helburua

Ikertuko duten gaiaren memoria eta historiaren arteko ezberdintasunak aztertzea.

Proposatzen diren jarduerak

1. Ariketa: Historia eta Memoria kontzeptuen aurkezpena.

Gelan ondorengo definizioak erabili daitezke:

- **Memoria kolektiboa:** talde batek partekatzen dituen oroitzapenak dira, iraganeko irudikapen mitifikatuak sarritan, eta komunitate edo talde jakin horren identitatea sustengatzen dute
- **Memoria historikoa:** iraganetik datozen aztarnak mantentzeko talde edo komunitate batek egiten duen saiakera da, oinordekoei transmititzen sortu duten iraganaren irudi edo irudikapena. Iragana berreskuratzeko saiakera hauek galera sentipen baten erroa dute maiz, isildutako edo ahaztutako gertakariak bailiran.

Memoria historikoaren kontzeptua hobeto ulertzeko, hona hemen bere ezaugarrietako batzuk:


1. Komunitate bakoitzak bere iraganaren irudi edo alegiazko irudikapena eraikitzen du. Memoria historikoa eraikitze prozesu baten emaitza da beraz, protagonistek beraien oroitzapenak era aktiboan sortu eta aukeratzen dituztelarik, gertakari batzuk gogora ekarriz eta beste batzuk isilduz edo ahaztuz. Prozesu hauen bitartez iragana eraldatzen du memoriak, orainaldian garrantzitsu bilakatzen den alegiazko iragan bat sortuz.

2. Iragana beti gaur egunetik begiratzen den heinean, bizi ditugun zirkunstantziek honekin eraikitzen ditugun loturak baldintzatzen ditu. Ez dugu ahaztu behar memoria beti orainaldian eraikitzen dela. Gaur egun arduratzen gaituenak gidatuko du hortaz iraganaren ikuspuntua eta haren berreraikitzea.

3. Memoria historikoa ez da iragana baizik eta iraganarekin loturak egiteko ahalegina: iraganean gertatutako gertakariak eta prozesuak gogoratzea (eta oroitzapena egitea) alegia.

4. Historiaren zein memoria historikoaren definizio zehatzak ematea beharrezkoa da, biak ala biak iruzurtiak izan daitezkeelako. Memoria selektiboa da eta iraganaren berreraikitze selektibo bat da. Memoria bukaerarik gabeko eraikuntzan eta elaborazioan dago, bizirik dago eta ahaztu/gogoratu dikotomian oinarritzen da. Banakoek egungo beharizanen arabera oroitu edo ahazten dute iragana eta gehienetan ez dira prozesu jarrai honetaz kontziente, honek manipulagarria bilakatzen dituelarik. Memoriak orokorrak eta espezifikoak dira aldi berean, kolektiboak eta banakakoak. Memoria giltzarria da banakako nortasun eta nortasun kolektiboaren eraikuntzan eta mante-nuan.

5. Historia, bestalde, denona eta inorena da, bere burua autoritate unibertsal gisa aldarrikatzen duen heinean. Institutio handien iraganaren eraketa (estatuena, talde etnikoena, nazioena) da selektiboki jabetzen, gogoratzen, ahazten eta sortzen dena. Aldi berean, onartu eta errepikatu egiten da herriaren kontzientzia. Identitate partikularren egiazkotasuna ezartzeko oinarria ematen digu, hala nola taldearen eta nazioarteko komunitatearen parte izatearen sentipena sortzen duelarik. Historia independentzia politikoa, nazioaren subiranotasuna eta autodeterminazioa sostengatzeko erabili daiteke.



Definizioak gelan landu ditugunean jada, oso baliagarria izan daiteke adibideekin borobiltzea. Ezagunak eta sozialki garrantzitsuak diren gertaera historikoak aukeratzeko saiatu, adibidez:


- **Oroitzapenak:** banakako lekukoen edozein iturri (ikus-entzunezko grabazioak, gutunak, idatzitako oroitzapenak, etab.)
- **Historia:** testuinguruaren edo gertakariaren gaineko azalpen historikoak: historialari bati elkarrizketa, dokumental bat, testu liburu bat, etab.
- **Memoria kolektiboa:** memoria indibidual ezberdinak biltzen dituen euskarri bat. Adibidez, banakako iturri ezberdinak biltzen dituen dokumental edo argitalpena
- **Memoria historikoa:** memoria-leku bat edo leku geografiko bat izan daiteke, monumentuak, instituzioak, gertakariak, edo baita mitoak, abestiak, liburuak edo bestelako produkzio artistikoak ere.

2. Ariketa: Irtenaldiak / Tailerrak.

Irtenaldiak oso motibagarriak dira ikasleentzat eta dimentsio erreal bat eman diezaiekete klasean landutako ideiei. Esperientzia pilotuetan zehar museoak, fitxategiak, oroigarriak, oroitzapen-txostenak eta leku sinbolikoak bisitatu ziren eta nork bere hiria aztertu zuen memoria historikoko adibideak arakatzu.

GOMENDIOA

Irteerak eta bisitak ez dira sekuentziaren plangintzan sartu, kontutuan hartu beharreko zerbait da hauek planifikatzean sekuentziaren pausu guztiak burutzeko denbora nahikoa izatea. Familiartekoen parte hartzea lortuz gero eskola orduetatik kanpoko bisitak antolatu daitezke, hurbileko instituzioen edo komunitateko bestelako kideen laguntzaz baliatuz antolaketarako.



2. Ataza: Ahozko lekukotasunak

1. JARDUERA: ELKARRIZKETA TEKNIKAK (ordu 1)

Helburua

Oinarrizko elkarrizketa tekniketan trebatzea.

Proposatzen diren jarduerak

1. Zerk egiten du elkarrizketa bat ona? (20 minutu).

Elkarri gelara bi elkarrizketa ezberdinetatik ateratako bi zati (Youtube edo irratia). Ahal bada bat albistegietatik ateratakoa eta bestea pertsonaia famatu baten elkarrizketatik edo entretenimendu saio batetik ateratakoa izan dadila. Erakutsi bi zatiak eta eskatu ikasleei ondoko galderak erantzutea:

- Zein uste duzue izan dela elkarrizketatzailearen helburua elkarrizketa burutzerakoan?
- Zeintzuk teknika erabili ditu elkarrizketatzen ari zen pertsonari buruzko informazioa lortzeko?
- Zein jarrera izan du elkarrizketatzaileak? (oldarkorra, adeitsua, formala, lagunartekoa...)
- Elkarrizketatuak nola maneiatu ditu galderak?
- Zure iritziz, norentzat izan da arrakastatsua elkarrizketa: elkarrizketatuarentzat edo elkarrizketa egin duenarentzat?

Jarduera murrizteko zati bakarra landu daiteke. Alternatiba gisa irratia eta telebistako elkarrizketen arteko alderatze bat egin eta ezberdintasunak aztertu daitezke banakoen gorputz hizkuntza aztertuz.

2. Zertarako erabiltzen dira elkarrizketak ikerketa historikoetan? (10 minutu).

Galdetu ikasleei zertarako erabiltzen diren elkarrizketak historian eta eskatu erantzunak idazteko. Dokumentaletan agertzen diren adibideak aprobetxatu. Zertan ezberdintzen dira elkarrizketa bat eta pertsona baten autobiografia?

- Lekukoen iritzia biltzeko modu bakarra izan daiteke
- Esperientzia pertsonalak aztertzeo aukera egokia da, gertakarien bertsio ofiziala landu beharrean
- Gertakari baten ikerketan dauden hutsuneak betetzeko
- Denbora epe luze baten ondoren jendeak gertakari zehatz bat nola gogoratzen duen jakiteko eta gertakaria bera testuinguruan kokatzen laguntzeko.

3. Zeintzuk dira elkarrizketatzaile on baten ezaugarriak? (15 minutu).

Eskatu ikasleei elkarrizketak zergatik egiten diren erantzutea: pertsonaia famatu edo politikarien gauza da soilik? Zertarako egiten dira lan elkarrizketak? Zein da historiako ikerketetan elkarrizketen xedeak eta nola erdiesten dira horiek? Zati klasea 3-4 ikasletako taldeetan eta eskatu iezaiezu elkarrizketatzaile on batek izan behar dituen ezaugarriak zerrendatzea.

Utzi 10 minutu ariketa burutzeko eta 5 minutu eztabaidatzeko. Eskatu ikasle bati eztabaidan atera diren ezaugarriak idaztea.

Elkarrizketatzaile on batek izan behar dituen ezaugarriak asko dira, adibidez:

- Elkarrizketatuarekiko enpatia azaltzea: bere sentipenak ulertzea, bereziki gaia tentuz ibiltzekoa edo deserosoa denean
- Elkarrizketatuko den gaiaren inguruko ezagutza egokia
- Errespetuzko jarrera adeitsua izatea
- Elkarrizketatuarekiko interesa azaltzea
- Sekretuak gordetzen jakitea, elkarrizketatuko den pertsonaren idatzizko baimena behar da bere ekarpena partekatzeko
- Antolakuntzarako gaitasuna
- Teknologien erabilera trebea izatea
- Zeregin-aniztasuna: elkarrizketa pentsatu, entzun eta gidatu, eta gero hizpide izango denari buruzko ohar mentalak hartzeko gai izatea aldi berean
- Baina ezaugarririk garrantzitsuena **entzuten jakitea** da. Hitz egiten ari denean, aurrean dugun pertsonari, arreta guztia jarri behar zaio.

Zatitu klasea taldetan, ikasle batek galderak erantzun egingo du, beste batek galderak egingo ditu eta beste batek behatu egingo du. Hitz egitea errazten duten galderak egitea komeni da: zer egitea gustuko duten denbora librean, zer egin zuten asteburuan, beraien egunik gogoangarriena zein izan zen ... Jarraian rolak aldatzea komeni da.

Elkarrizketa on bat egiteko gomendioak:

- Elkarrizketatua eroso sentiaraztea
- Elkarrizketatuak denbora luzez hitz egin behar badu, komenigarria da ura eskura izatea
- Begizko kontaktua mantentzea (gatazka kulturalik sortuko ez bada)
- Zaratarik ez egitea bermatu
- Gorputz-hizkuntza irekia mantendu
- Entzun, entzun eta entzun!
- Banan-banan, galdera labur eta zuzenak egin
- Modu argian eta errazean hitz egin
- Interesa agertu beti.

Zer ekidin behar den elkarrizketa batean:

- Ez moztu elkarrizketatuaren hizketaldia, eman nahiko denbora bere erantzuna bukatzeko; ez zaratarik egin elkarrizketatua hitz egiten ari den bitartean. Horren ordez erabili komunikazio ez-berbala
- Elkarrizketatuarekin ez eztabaidatu edo berari ez kontrarik egin
- Elkarrizketatuari ez presarik sartu. Pertsona batzuk denbora behar dute beraien pentsamendua antolatzeko
- Gaiak ez aldatu, zerbait interesgarria esaten ari bada geroago itzuli liteke beste gaira
- Ez ahaztu galdera, errepikatzea eskatzen badu ere.

Errepasatu gomendio hauek klasean eta konfirmatu ikasleak haien garrantziaz jabetu direla.

- Ikuspegi multi-curricularra: Jarduera hau hizkuntzen ikasgaiari landu daiteke
- Interesgarriak diren web orrialdeak:
 - <http://www.ahoaweb.org> · Ahozko Historiaren Euskal Herriko Erakundea
 - <http://www.ahotsak.com> · Euskal Herriko Ahozko eta Dialektoen Ondarearen Bilduma eta Zabalkunde Programa
 - <http://www.iohanet.org/espa/index.html> · Ahozko Historiaren Nazioarteko Elkartea
 - <http://www.navarchivo.com/index.php/es/fondos/etnografia-navarra/historia-oral> · Nafarroako Ondare Immaterialaren bilduma.

2. JARDUERA: LEKUKOEN TESTUINGURUA ETA GALDEREN PRESTAKETA (ordu 1)

Helburua

Ikasleek elkarriketatuko duten lekukoaren testuingurua aztertu eta elkarriketaren galderak prestatzea.

Proposatutako jarduerak

1. Klasean aurkeztu elkarriketatuko diren pertsonak.

- Gelakideak bi talde handitan banatu. Ondoren, talde bakoitza talde txikiagoetan zatitu
- Klase-kide erdiek pertsona horren inguruko materialekin egingo dute lan: argazkiak, aipuak, biografia... Hau da, elkarriketatua nor den eta zer bizi izan duen ikertuko dute
- Gainerakoek, elkarriketatuko duten pertsonarekin erlazioa duen gertakari historiko bati buruzko materiala bilatuko dute: komunikabideetako berriak, liburu historikoe-tako pasarteak, argazkiak, etab.
- Talde bakoitzak nork, zer, noiz, non eta zergatik galderak erantzuten dituen laburpen bat idatziko du batutako materialarekin; aztertutako pertsonaz eta gertakari historikoaz.

2. Elkarriketaren prestateta (20 minutu).

Ikasleak talde txikitan banatuko dira. Ikertzaileak bailiran, aurreko jardueran aurkeztutako pertsonaia elkarriketa prestatu eta planifikatu dute. Hurrengo puntuak planifikatu beharko dituzte:

- Tokiaren eta espazioaren antolamendua, non egingo dute elkarriketa? Zer behar dute? Nola bermatuko dute elkarriketatua eroso sentituko dela?
- Zeintzuk galdera egingo dituzte? 10-12 galdera prestatu beharko dituzte, lortu nahi duten informazioa eta galderen ordena kontutan hartuz.
- Galdera bakoitza nork egingo duen erabaki behar dute. Nola bermatuko dute komunikazioa eta begizko kontaktua mantenduko dutela elkarriketatuarekin? Elkarriketa gidoia irakurri gabe galderak egiteko gai izan arte praktikatu behar dute.

Elkarrizketak eskolaz kanpo egin behar badituzte, hurrengo gomendioak betetzea proposatzen da:

- Eskolak berak hitzartutako edo ezagutzen dituen pertsonak soilik elkarrizketatzea
- Erabiliko den tokia egokia dela ziurtatzea (lasaia, eroso, etab.)
- Elkarrizketatuari material gehigarria partekatzea gustatuko ote litzaiokeen galdetzea gogorarazi ikasleei: argazkiak, gutunak, agiriak, etab.

Interesgarriak diren web orrialdeak:

- <http://www.ahoaweb.org> · Ahozko Historiaren Euskal Herriko Erakundea
- <http://www.ahotsak.com> · Euskal Herriko Ahozko eta Dialektoen Ondarearen Bilduma eta Zabalkunde Programa
- <http://www.iohanet.org/espa/index.html> · Ahozko Historiaren Nazioarteko Elkartea
- <http://www.navarchivo.com/index.php/es/fondos/etnografia-navarra/historia-oral> · Nafarroako Ondare Immaterialaren Bilduma.

3. JARDUERA: ELKARRIZKETAK (2 ordu)

Helburua

Lekukotasunak jasotzea.

Proposatutako jarduerak

Elkarrizketa bat ongi kudeatzeko ideia batzuk:

Elkarrizketa hasi aurretik azaldu elkarrizketatuei elkarrizketaren helburua zein den eta zenbat iraungo duen. Eskatu iezaezu aztergai den garaia buruzko argazkiak edo agiriak gelara ekartzea.

Ikasleek landutako garaia buruzko ezagutza mailak eta galderen prestaketak egokiak izan behar dute. Elkarrizketak grabatzeko erabiliko den materiala aurrez probatu eta bermatu bateria eta memoria balekoak dituela. Kontutan izan lekuko batzuk ez dutela elkarrizketa grabatzerik nahiko, beraz, eska iezaezu grabatzeko baimena elkarrizketa hasi aurretik.

Elkarrizketa hastean, gogoratu lekukoari elkarrizketa bere esperientzian eta oroitzapenetan zentratuko dela. Azaldu iezaezu aurretik prestatutako galderen ildotik bideratuko dela elkarrizketa. Eserarazi elkarrizketatua aulki eroso batean eta taldearen barruan, erabat integratua sentitu dadin. Bere burua aurkezteko eskatu eta egin iezazkiozue galdera pertsonal batzuk bera erlaxatu dadin. Aurretik erabakita egon behar da nork egingo duen galdera bakoitza eta zein ordena jarraituko den. Lekukoa ez dela nekatzen ari ziurtatu eta elkarrizketan agertu den punturen bat argi geratu ez bada, mesedez argitzeko eskatu iezaezue. Elkarrizketatuak esaten duenaren inguruan ez ditugu iritziak helaraziko.



Bukaeran, eskerrak eman eta elkarrizketaren grabazioaren helburua hezitzailea izango dela jakinarazi. Elkarrizketaren onarpen-agiria sinatzeko eskatu. Eskatu iezaiozue bere iritzia elkarrizketaren inguruan eta lagundu irteeraraino.

GOMENDIOAK

- Elkarrizketak grabatzea komeni da ondoren egingo dugun analisirako, beti ere elkarrizketatua ados baldin badago. Ados ez badago, ikasleek oharrak hartu beharko dituzte elkarrizketan zehar
- Aukeratutako gaiaren arabera, familiako pertsona bat elkarrizketatzea alternatiba egokia izan daiteke. Proiektuari eskaini beharreko denbora murriztuko du honek eta elkarrizketatuarekiko hurbilago sentitzeko aukera emango digu.



3. Ataza: Analisia

1. JARDUERA: ELKARRIZKETAREN ANALISIA (2 ordu)

Helburua

Elkarrizketaren analisia.

Proposatutako jarduerak

Kontu handiz planifikatu behar dugu elkarrizketen analisia. Elkarrizketatuak klasera etorri baldin badira gomendagarria da bukatu bezain pronto egitea analisia. Ikasleek ondoko puntuak hartu behar dituzte kontutan:

- Elkarrizketatutako pertsonen oroitzapen pertsonalak aurretik aztertutako garaia testuinguruan kokatu
- Jasotako informazioak garai edo gertakari historikoari zer ekarpen berri egin dion identifikatu
- Elkarrizketatuak gertakari historikoei buruz noiz hitz egin duen eta hauen inguruko bere interpretazioa noiz eman duen desberdintzen saiatu
- Ezberdinu elkarrizketatuak noiz ari diren beraien bizipenei buruz edo beste pertsona baten esperientziei buruz hitz egiten
- Pertsonen emozioak eta horiek zerk sortu dituen hauteman
- Gertakari edo prozesu historikoek elkarrizketatuaren bizipenetan zein eragin izan dituen identifikatu eta honen ondorioak aztertu (oso garrantzitsua da guda edo gertakari traumatikoen kasuetan)
- Gertakari historiko baten inguruan ikuspuntu ezberdinak daudela onartu.

Ikasleei ondorengo galderak egitea lagungarria izan daiteke:

- Entzundako gauzen artean zerk harritu zaituzte?
- Aurrez zenekitenaren edo uste zenutenaren aurkakorik entzun al duzue? Zuen aurrezagutzentzat osagarria den informaziorik jaso al duzue?
- Aztergai duzuen gertakariari buruzko bere iritzirik eman al dute elkarrizketatuek? Beraien iritzia ziren ala beste batzuenak?
- Ezer berririk ikasi al duzu beraien sentipenei buruz, haien aurpegira begiratzean, ahotsa entzutean, keinuak ikustean?
- Egon al da erantzun nahi izan ez duen galderaren bat? Gelditu al da galderaren bat erantzun gabe?
- Aztergai duzuen gertakari historikoari buruz zenekitena aldatu al du elkarrizketak?

2. JARDUERA: HISTORIA ETA MEMORIA KONPARATZEA (2 ordu)

Helburua

Ikergaia historia eta memoria konparatzea.

Proposatutako jarduerak

Proiektuaren atal honetan, ikasleek aztergai duten gertakari historikoarekin harremanetan dauden memoriak nola eraiki diren aztertu behar dute. Baita honen guztiaren oroitzapenak eta memoria kolektiboak alderatu ere.

Hasteko, ordura arte ikasitakoa laburbildu egin beharko dute. Horretarako, gisa honetako galderak erantzun ditzakete:

1. Zein gertakari historiko aztertu dituzu?
2. Zeintzuk iturri erabili dituzu gertakari historiko hori ezagutzeko? (testuliburuak, agiriak, filmak, museoak, elkarrizketak).
3. Laburbildu aztertutako gaiari buruz iturri horiek diotena.

Erantzunak antolatzeko ondoko taula erabili daiteke:

Iturriak	Zer dio iturri honek gaiari buruz?
Testuliburuak	
Bestelako agiri eta materialak (zehaztu mesedez: gutunak, egunkariak, filmak, eleberriak)	
Museoa(k)- deskribatu non eta zein	






4. Bertsio desberdinak ematen al dituzte iturri horiek? Hala bada, zertan desberdintzen dira?

5. Zertan ezberdintzen dira historia eta memoria?

Zergatik oroitzen dira modu desberdinean gertakari historikoak? Nola eraiki da gertakari horren memoria zehatz-mehatz? Gertakari edo garai horrek herri edo talde batek gogoratu edo ahaztu nahi duen zerbait islatzen al du? Nola eta zergatik? Aukeratutako gaiaren arabera, esanguratsua izan daiteke ikuspuntu pertsonaletik edo kolektibotik aztertzea.



4. Ataza: Sormenezko Lana

1. JARDUERA: SORMENEZKO LANA (5 ordu)

Helburua

Informazio historikoa eta memoriaren analisi kritikoa lantzen dituen sormenezko lana egitea.

Proposatzen diren jarduerak

Sormenezko lanak ordura arte egindako lanaren emaitza izan behar du, eta sekuentzia didaktikoan zehar jasotako esperientziak eta oroitzapen guztiak bildu behar ditu. Informazio historikoa eta memoriak kontutan hartu behar ditu, baita ikasleen iritziak ere.

Sormenezko lanaren euskarria sekuentzia garatzeko eskuragarri dagoen denboraren arabera izango da. Lanaren euskarria ikasleekin adostu daiteke, haientzat motibagarria izan dadin. Esperientzia pilotuetan ondoko lanak egin dituzte ikasleek:

- **Narrazio digitalak:** diseinatzeko eta produzitzeko denbora dezente behar da. Sormenezko lana egiteko denbora gutxi badago, hobe da bestelako lan bat egitea. Oso garrantzitsua da ikasleek behar adinako ezagutza eta trebetasun tekniko izatea. Baita eskolan baliabide eta software egokiak izatea ere. Narrazio digitalak informatika klasean editatu daitezke
- **Aurkezpena:** jasotako materialak (argazkiak, mapak, agiri pertsonalak, etab.) eta lekukotzak jasotzeko baliabiderik sinpleena da. Ez da informatika ezagutza berezirik behar eta Prezi bezalako baliabideekin ikasleen sormen gaitasunak garatu daitezke (www.prezi.com)
- **Erakusketa:** ikasleek ikertu duten garaiko objektu eta materialak batzea hezkuntza komunitatea proiektura erakartzeko modu egoki bat da. Inguruko museo edo artxiboein ere hitz egin daiteke, prest egon baitaitezke elementuren bat mailegatzeko. Proiektua eskola guztiaren aurrean aurkezteko modu bat ere bada
- **Dokumentala:** eskolaz kanpoko lanordu asko eskatzen ditu, adituen laguntza ere beharrezkoa da. Ikasleen motibazioa altua bada eta eskolaz kanpoko baliabide baditu, kontutan hartzeko aukera da.

Komiki bat, collage bat, performance bat... izan daitezke gainerako beste aukera batzuk.

GOMENDIOA

- **Kontutan hartu proiektua garatzeko eskuragarri dagoen denbora:** ordu gehiegi eskatzen ez duen eta helburuak ondo betetzen laguntzen duen euskarri bat aukeratu. Garrantzitsua da aukeratzeko den euskarria motibagarria izatea ikasleentzat. Diziplinarteko ikuspuntuari dagokionean, informatika edo plastikako klasean landu daiteke ataza hau.

5. Ataza: Europako memoriak partekatzea

1. JARDUERA: MEMORIAK PARTEKATZEA (2 ordu)

Helburua

Materialen, sormenezko lanen eta bizipen pertsonalen bitartez, beste eskolek izandako esperientziak ezagutzea eta partekatzea.

Proposatutako jarduerak

Europako historia soziala ulertzea, historiaren bilakaera, lorpenak eta gatazkak ezagutzea bultzatzen du jarduera honek. Historiaren eta memoriaren azterketa kritiko batek ikuspuntu ezberdinak daudela jabetzea eta horiek ezagutzea eskatzen du. Hau da, gertakari historikoei kausa anitzak dituztela jabetzea.

Historiaren azterketa kritiko batek kultura ezberdinek gizartei egindako ekarpenak azaleratzen ditu eta honek gizartearen parte izatearen sentimendua indartzen du. Garrantzitsua da hiritartasun globala eta identitate lokala guztiz bateragarriak direla jabetzea.

Aukeretako bat Europako mapa bat klasera eramatea izan daiteke. Bertan ikasleek gertakari historikoa jazotako herrialdea nabarmendu dezakete. Fase honetan erabiltzeko baliabideak datu-basean daude eskuragarri. Datu-basea erabiliz, ondokoa egin dezakete ikasleek:

- Topatu klasean landutako gaiarekin erlazioa duen beste adibide bat (prozesu historiko garaikidea edo herrialde ezberdinetan gauzatutako gertakaria)
- Beste herrialde bateko proiektua laburki deskribatu dezakete: herrialdea, eskualdea, gaia, garaia.
- Prozesu historiko horren kausen eta ondorioen analisia.
- Ondoko galderak erantzutea: prozesu historiko horri buruzko ezer ezagutzen al zenuen? Zer ikasi duzu? Ba al dago ulertzen ez duzun eta gehiago jakitea gustatuko litzaizukeen zerbait? Antzekotasunik ba al dago zuk ikertutako eta beste herrialde bateko kasu horren artean?



I. Eranskina: Memoriak nola partekatu

Europako Memorien Datu-Basea

SEM@S Datu-Baseak helburu bikoitza du:

- Sekuentzia didaktikoa erabili duten beste eskoletako esperientziak eta materialak biltzea; memoriak partekatzeko atazan erabiltzeko
- Sekuentzia didaktikoarekin beste eskoletan egindako lanari buruzko informazioa helaraztea irakasleei, irakasleek beste esperientzietatik ekarpenak jaso ditzaten.

SEM@S Europako Memorien Datu-Basea ondoko helbidean dago eskuragarri:

<http://memoriesatschool.aranzadi-zientziak.org>

Datu-basea herrialdeka banatuta dauden portafolioz eta eskola bakoitzak landutako gaiez dago osatuta. Bertan ondoko informazioa jasotzen da:

- 1. Testuinguru historikoa** (euskarri komuna): herrialdea, gaia, garaia eta zergatik den eskolarentzat, herriarentzat eta gizartearentzat garrantzitsua gai hau lantzea
- 2. Memoriak** (euskarri komuna): elkarrizketak, bisitak, informazio iturri gehigarria...
- 3. Historiaren eta memoriaren arteko erlazioa** (euskarri komuna): ikuspuntu berriak, zer da ikasleek ikasi dutena, etab.
- 4. Sormenezko lana**
- 5. Erabilitako iturriak** (erabilitako material grafiko eta ikus-entzunezkoak: argazkiak, mapak, gutunak, estekak,...)
- 6. Irakasleentzat informazioa:** erabilitako ikus-entzunezko materiala edo material grafikoa: argazkiak, mapak, gutunak, estekak, etab.).

Datu-base honen xedea SEM@S proiektuan parte hartzen duten Europako ikastetxeek bilgune eta elkargune bezala erabiltzeko plataforma bat eskaintzea da.

Horregatik, ikastetxe bakoitzari bere esperientziaren berri emateko denbora apur bat baliatzeko eskatzen zaio. Datu-basea zenbat eta aberatsagoa izan, orduan eta lagungarriagoa izango baita etorkizunean baliabide hori erabili dezaketen irakasleentzat. Zure esperientziaren berri eman nahi baduzu, mesedez, jar zaitez kontaktuan ondoko posta elektronikoen bidez:

rmartinez@aranzadi-zientziak.org edo zuzendaritza@aranzadi-zientziak.org



Eskola batekin memoriak partekatzea

Eskola proiektu-kide izateak, aldi berean, zure eskolarekin batera, Europako beste ikastetxe bat sekuentzia didaktikoa lantzen ari dela esan nahi du. Honek, prozesuan zehar, eskolen artean memoriari partekatze jarraitu bat egiteko aukera eskaintzen du. Ez soilik ikasleen amaierako produktuen partekatzea.

Eskolen arteko komunikaziorako lehen egitekoa, lan-hizkuntza aukeratzea da. Komunikazioak normalean ingelesez egingo dira baina gerta daiteke eskolek beste hizkuntza bat erabili nahi izatea. Edonola ere, bi eskolen arteko lankidetzak hasi aurretik argi geratu behar da zein hizkuntzetan burutuko diren komunikazioak.

Harreman jarraitu bateko koordinazio lan handia eskatzen du. Beraz, irakasleak oso motibatuak egon behar dira eta beharrezkoa den denbora eskaintzeko prestutasuna izan behar dute. Ez da ahaztu behar lanaren partekatze jarraitua egiteko aukera hobesten bada, ikasleen ahoz zein idatzizko komunikazio konpetentzien garapena ahalbidetu daitekeela.



IKT-ek ikasleen arteko komunikazioa errazten duen tresna sorta eskaintzen dute. Sare sozialek edo web 2.0 aplikazioek, proiektuko lanak eta esperientziak partekatzen lagunduko dituzte. Beherago aipatuko den bezala, "Skype" bidezko konferentziek edo sare sozialen erabilerak lanak partekatzea erraztu dezakete.

Nola bilatu proiektuak partekatzeko eskola bat

Lehen aukera "e-Twinning" ataria da. Berau Europako irakasle guztiak kontaktuan jartzeko, proiektu komunak aurrera eramateko eskolak bilatzeko eta ideiak partekatzeko plataforma guztiz segurua eta doakoa da. Europako Batasunak garatu du (www.e-twinning.net) eta proiektuak elkarlanean garatzeko interesa azaltzeko eskolentzako atal berezi bat eskaintzen da.

Europako Batasuneko hezkuntza programak (Comenius adibidez) lagungarri izan daitezke harreman sendoagoak lortu eta eskolen arteko mugikortasunerako diru-laguntzak lortzeko. Informazio gehiago jaso nahi baduzu, agentzia nazionalera jo dezakezu: agentzia nazionalen zerrenda - 2012).

2012ko urtarilaren eta ekainaren artean SEM@S proiektuko inplementazioen esperientzia pilotuetan izandako eskarmentuaren arabera, "Skype" bidezko konferentzia bat antolatzeak zenbait arazo logistiko eta tekniko sortzen dituz.

Hala ere, guztiz gomendagarria da beste herrialdetako eskolekin esperientziak partekatzeak komunikazio eragingarriak ahalbidetzea (bai irakasleen eta baita ikasleen artean ere).

Ikasgela nahiko baliabide teknikoak hornitua egon behar da (ikus beheago). Eta baliabideen funtzionamendu egokia aurretiaz konfirmatu behar da; hau da, mikrofonoen, bozgorailuen eta kameren funtzionamendu egokia. Honela arazo asko ekidin ahalgo dira.

Ikasleen arteko komunikazioa burutu aurretik, ikasleek elkar ezagutzeko lehen kontakturako galdera sorta bat prestatu beharko dute.

Eskolen arteko komunikazio eraginkor baterako, onena ikasleak 5 pertsonen osatutako taldeetan banatzea da. Talde bakoitzak ordenagailu bat beharko du. 9 bakarkako ordenagailuetako bideo konferentzia erabili ahal dira, baina komunikazioa "Skype" bidez egin nahi bada, ez da dohainekoa. Horretarako "Skype premiun" kontua izatea nahitaezkoa da.

Ikasleen arteko lehen komunikazioan; elkar ezagutzarako gisa honetako galderak burutu daitezke:

- Pertsonen buruzkoak: izena, adina, hiria, zaletasunak, etab.
- Eskolaren buruzkoak: ikasle kopurua, ikasgaiak, kurtsoak, etab.
- Herrialdearen buruzkoak: zer dakiten beste herrialdearen buruz? biztanle kopurua, hiriak, pertsonaia famatuak, kultura, etab.
- Bi herrialdeen arteko berdintasunak eta ezberdintasunak.

Gero, proiektuari buruzko ideia batzuk jorratu daitezke:

- Jorratutako gai historikoa
- Ordura arte egindakoaren berri ematea
- Ahozko lekukotasunak: nor elkarrizketatu duten, zer deskubritu edo zer deskubritzea espero duten.

Gomendioak

Prestakuntza

Oinarrizko bertsiorako erabiltzaileen izenak aldatzea besterik ez dago "Skype"-n.

Klase guztiarekin konferentzia bat egiterakoan, irakasleak hizlariak erraztasunez topatzeko gelan dauden "Skype" erabiltzaile guztiekin zerrenda bat osatu beharko du. Data eta ordu bat ezarri beharko da konferentziarako eta herrialdeen arteko ordu desberdintasunak kontuan hartu beharko dira.

Skype konferentziaren aurretik

1. Jar zaitez kontaktuan beste herrialdeko ikastetxearekin posta elektroniko bidez, Skype erabiltzaileen zerrenda trukatzeko.
2. Adostu ezazue konexiorako hitzordua, eguna eta ordua.
3. Erabaki nork bideratuko duen konferentzia, hau da, nor izango den bozeramailea.
4. Azaldu eskola bakoitza SEM@S sekuentziaren zein fasetan ari den lanean.
5. Definitu nork hartuko duen parte konferentzian. Ikasleen arteko komunikazioa errazagoa izango da talde txikitan.
6. Badaezpada ere pentsatu estrategiaren bat, bideo konexioa egokia ez denerako edo konferentzian zehar seinalea eteten bada. Beste talderen bati deitu? Nork egin behar du hau? Skypeko txata erabili ahal izango litzateke soinuarekin edo bideoarekin ditugun arazoen berri emateko.

Skype konferentzian zehar

1. Lehenik eta behin taldeko partaide bakoitzak bere burua aurkeztu beharko du (minutu 1 edo 2).
2. Bozeramaileak egin beharrekoak laburbilduko ditu.
3. Komunikazioaren garapena.
4. Konferentzia bukatzeko, zein izango da hurrengo pausoa? Eskolen artean komunikazio gehiago egongo al dira?

Skype erreminta talde gisa erabiltzen denean, hartzaile den banako edo gelak ez du gure klase osoa ikusten. Ikasleren batek gelan gertatzen den zerbaitez adi ez balego, hariaren bestaldean dagoen ikaslea edo ikasle-taldea distraitu egin dezake. Irakasleak ikasleak pantailari adi daudela bermatu behar du, honela distrakzioak ekidin egingo baitira.

GOMENDIOAK

Jarduera hau ingeles edo informatikako ikasgaian landu daiteke.

Eskolen arteko proiektuaren amaierako komunikazio bakar bat edo konferentzia jarraituak antolatu daitezke.

· Skype erabiltzeko baliagarriak diren zenbait esteka:

- Skype deskargatzeko: <http://www.skype.com/intl/es-es/get-skype/>
- Skype euskarria: <https://support.skype.com/es-es/>



Aurretikako prestaketa

- Aukeratutako sare sozian taldea sortzeko ardura duen ordezkaria edo irakaslea aukeratu behar da. Jarraian, taldea itxia edo irekia izango den erabaki behar da. Arduradun honek beste eskolako irakasle bati gonbitea helaraziko dio eta administrazioa izango dira biak
- Eskola bakoitzeko arduradunak ikasleak taldean sartzera gonbidatuko ditu. Onena proiekturako profil espezifiko bat sortzea da, edo gelako profil bat, ikasle bakoitza bere profilarekin konektatu beharrean.

Gelako lanketa

Sare sozialak proiektuaren garapenez informazioa emateko, informazioa trukatzeko eta eztabaiatzeko (agiriak, bideoak, argazkiak, etab.), Skype konferentziaren nondik norakoak finkatzeko... erabili daiteke.

GOMENDIOAK

Ez ahaztu segurtasun eta datuen babeserako neurriak hartzea:

- Proiekturako profil espezifikoak sortu, ez da komeni irakasleen eta ikasleen kontu pribatuak erabiltzea; eta ezta sare sozialetan "adiskide" egitea ere
- Klaseko orduetan eta irakaslearen ikuskapenez erabili behar du ikasleak sare soziala
- Irakasleak on-line eztabaidak bideratu behar ditu
- Ahal den neurrian segurtasun maila handia duten eta hezkuntzara zuzendutako sare sozialak erabili; adb. eTwinning, Edmodo, TeachTube; SchoolTube, Ning, Moodle, Docebo.com. Facebook izan daiteke aukerarik errazena, erabiliena baita. Dena den ikastetxe batzuk zenbait sare sozialetarako sarbidea moztuta izan dezakete, Facebook-era adibidez. Sare honek baliagarria izan daitekeen hezitzaileentzako gida bat badu: <https://www.facebook.com/about/privacy/#!/safety/groups/teachers/>

Materiala partekatzeko erabili daitezkeen beste aukera batzuk honakook dira:

- Flickr (www.flickr.com) argazkiak partekatzeko
- Youtube (www.youtube.com) edo Vimeo (www.vimeo.com) bideoak partekatzeko.



1. Testuingurua

Eskuarteko eranskin hau Sharing European Memories at School (SEM@S) izeneko proiektuaren sekuentzia didaktikoaren egokitza da. Egokitza hau Euskal Curriculum eta Euskal Herriko gizarte eta kultur testuingurua kontutan hartuta burutu da. Beronen esperientzia pilotuaren inplementazioa Donostiako Santo Tomas Lizeoko DBH 4ko 5. geletan gauzatu da; 2011-12 ikasturtean hain zuzen ere.

Inplementazioan landu den gaia Donostiako II industrializazioaren memoria historikoa (1950-1970) izan da. Donostian bi hamarkada hauetan gauzatutako aldaketa urbanistikoetatik abiatuz, bertako auzoetan emandako gizarte-aldaketak aztertu dituzte aipatu ikastolako 113 ikasleek, ingelesez irakasten den historia ikasgaiko laugarren ebaluazioan (2012ko apirilaren 18 eta ekainaren 20 artean).

2. Helburuak

Sekuentzia didaktiko honen helburua ondoko konpetentzia espezifikoak eta orokorrak garatzea da. Horretarako sei ikaste-emaizta posible proposatzen dira.

2.1 KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

KE1. Gizarte- eta historia-informazio iturriak bilatzean eta erregistratzean pentsamendu kritikoa garatzea.

KE2. Jasotako informazioaren lanketan pentsamendu analitikoa garatzea.

KE3. Gizarte-aldaketa historiko baten prozesua ikertzerakoan sormenezko pentsaera garatzea.

2.2 KONPETENTZIA OROKORRAK

KO1. Elkarrekin bizitzen ikasi.

KO2. Pentsatzen eta ikasten ikasi.

KO3. Komunikatzen ikasi.

2.3 IKASTE-EMAITZAK

IE1. Irakasleak proposatutako iturri historikoen eta sozialen (jatorrizkoak eta bigarren mailako iturri bibliografikoak); estatistikoen (ekonomikoak eta demografikoak) eta IKT baliabideen artean banaka zein taldean burutu behar dituzten lanetarako egokiak diren informazioak bilatzea eta erregistratzea.

IE2. Donostiako II industrializazio guthienez aktore sozial bat elkarriketatzea eta informazio hori iturri dokumentalekin modu kritiko eta kontrastatua lantzea, gertaerak eta iritziak bereiziz eta informazio kontrajarriak eta osagarriak testuinguru historikoan eta sozialean analizatuz.

IE3. Donostiako II industrializazio garaian gauzatutako aldaketaren testuinguru politiko, ekonomiko, sozial, urbanistiko, demografiko edo kulturalen inguruko gai baten inguruan lau ikaslez osatutako taldean ikerketa-lana burutzea, kausa aniztasuna eta faktore ezberdinen arteko erlazioa kontutan hartuta.

IE4. Taldean burutu beharreko ikerketa-lana planifikatzea, lanen banaketa egitea, lanaren jarraipena egitea eta ebaluazioa burutzea.

IE5. Klasean eta Poznan-eko Debinka ikastetxeko (Polonia) eta Kranj-eko Gimnazija Kranj (Eslovenia) eskolako ikasleei aurrez ikertutako gaia aurkeztea ingelesez, ideiak argi eta ondo egikarituta helaraziz eta IKT tresnak erabiliz.

IE6. Jasotako informazioarekin (alde batetik garaiko testuingurua irudikatzen duten material higikorak (adb. etxe-tresnak) eta bestetik dokumentazioarekin (bideo grabazioak, jatorrizko agiriak...) sormenezko lana egitea eta Lizeoaren egunerako erakusketa bat antolatzea.

3. Metodologia

Arazoei zuzendutako proiektuetan oinarritutako metodologia garatu da (Aalborg-eko Unibertsitateko POPBL eredua). POPBL eredua, ikasgai batean jasotako gaitasun eta ezagutzak praktikara emateko prozesua da. Bertan egoera errealak aztertuz, haiek landuz eta horren inguruan erabakiak hartuz ikasleek beren ikaskuntza prozesuaren kudeatzaile rola hartzen dute, prozesua beraren pausoak aurrera ateratzeko erantzukizun handiago hartu behar dutelarik.

Metodologia hau ikaskuntza prozesuan zentratuta dago, ikasleak zuzendutako prozesuan, talde txiki tutorizatueta eta jarduera praktikoa eta errealetara bideratuta dago. Metodologia honen bederatzi pausuetan Kolb-en zikloko lau ikaste-estiloak landu dira (esperientzia, hausnarketa, kontzeptualizazioa eta saiakuntza)

Zb	Pausoa	Azalpena	Ikaslearen lan-koadernoaren esteka
1	Hasierako arazoa	Ikasleek egin behar dutenaren aurkezpena	https://sites.google.com/site/semsdonostia/
2	Arazoaren azterketa	Kontzeptu orokorren eta testuinguruaren azalpena	https://sites.google.com/site/semsdonostia/1-jarduera
3	Atazen definizioa	Atazen definizioa eta egutegia	https://sites.google.com/site/semsdonostia/agenda
4	Arazoaren akotazioa	Elkarrizketa tekniken trebakuntza	https://sites.google.com/site/semsdonostia/2-jarduera
5	Soluzioaren diseinua	Ikertuntza	https://sites.google.com/site/semsdonostia/3-jarduera
6	Eztabaida/ondo rioak	Klase-kideei egindako ikerketa-lana aurkeztu	
7	Inplementazioa	Lizeoaren eguneko erakusketa	
8	Txostena	Txostenaren idazketa	
9	Azken ondorioak	Poloniako eta Esloveniako ikasleekin lana partekatu	https://sites.google.com/site/semsdonostia/5-jarduera

4. Ebaluazioa

4.1 LEHEN IKASTE-EMAITZA

Definizioa: irakasleak proposatutako iturri historikoen eta sozialen (jatorrizkoak eta bigarren mailako iturri bibliografikoak); estatistikoen (ekonomikoak eta demografikoak) eta IKT baliabideen artean banaka zein taldean burutu behar dituzten lanetarako egokiak diren informazioak bilatzea eta erregistratzea.

Jarduerak: egingo dituzten jarduerak 2.2. *elkarrizketa*; 3.1. *egungo hiria ezagutzen* eta 3.2. *ikerlana* eta ebaluatuko den jarduera: 3.2. *ikerlana*.

Ebaluazio tresna: ikasleek erabilitako informazio-iturriak erregistratzen dituen taula bat beteko dute. Taula horrek ondoko eremuak izango ditu eta 3.2. ariketako 3. ariketan aipatzen den bezala, haien lan-koadernoetan jasoko dute.

Zb	Iturri mota	Non aurkitu duzu?	Erreferentzia	Iturriaren balorazioa
1	(dokumentua, elkarrizketa, mapa...)	(liburutegian, interneten...)	(http://www...) liburuaren egilea, izena, urtea eta orria)	(Informazio oso nahasia...)

Irakasleak honako ebaluazio irizpideak baloratuko ditu:

Irizpidea	0,1 HOBETZEKO	0,18 NAHIKOA	0,25 ONDO	0,375 OSO ONDO	Puntuaketa
Informazio iturrien aukeraketa	Ikergairako informaziorik gehitzen ez duen iturriak aukeratu dira	Informazio iturri ez oso esanguratsuak eta irizpiderik jarraitu gabekoak aukeratu dira	Ongi aukeratu dira ikergaia lantzeko aztertu beharreko informazio iturriak	Ikerteta helbururako oso esanguratsua den informazioa aukeratu da	/0,375
Informazio iturrien kopurua	Informazio iturri bakarra erabili da	Bi informazio iturri ezberdin erabili dira	Hiru informazio iturri ezberdin erabili dira	Izaera ezberdineko hiru informazio iturri baino gehiago erabili dira	/0,375
Jasotako informazio-iturriak erregistratzeko taula	Taula ez da behar bezala bete	Taularen eremu guztiak ez dira bete	Egoki bete da taula	Xehetasun handirekin eta behar bezala baloratuta bete da taula	/0,375
Ikerteta-txostenean jatorrizko iturrien zitatzea	Iturri ezberdinetatik kopiatu eta itsatsi egin da jatorria aipatu gabe	Ez dago garbi ikerteta lanean zer den sortua eta zer beste iturri batetik jaso	Ikerteta-lanean erabilitako informazioaren jatorria aipatzen da baino aipuak ez dira kakotx artean zehazten	Ikerteta-lana egiterakoan erabilitako iturriak eta aipuak behar bezala bete dira	/0,375

**GUZTIRA
/1,5**

4.2 BIGARREN IKASTE-EMAITZA

Definizioa: Donostiako II industrializazioko gutxienez aktore sozial bat elkarriketatzea eta informazio hori iturri dokumentalekin modu kritiko eta kontrastatuan lantzea, gertaerak eta iritziak bereiziz eta informazio kontrajarriak eta osagarriak testuinguru historikoan eta sozialean analizatuz.

Jarduerak: 1.2 *testuinguru historikoa*; 1.3 *oroimena*; 1.4 *oroimena eta historia* eta 1.5 *oroimen-lekuak* ariketekin kontzeptu orokorrak jasoko dituzte eta 2.2 *elkarriketan* eta 3.2 *ikerketa-lanean* informazioa landuko dute. Ebaluatuko diren jarduerak honakoak izango dira: 2.2.B.3 *elkarriketa* eta 3.2 *ikerlanean*.

Ebaluazio tresna: alde batetik, 2.2.B.3 *elkarriketa* ariketan, aurrez egindako elkarriketaren sekuentzializazioaren taula beteko dute (ikus ondoko taula). Taula horretan lekukotasunetik iritziak eta gertaerak behar bezala ezberdinduta dauden ebaluatuko da.

Zatiaren zkia.	Denbora tarte	Gai nagusia	Gertakaria ala iritzia?	Lanerako garrantzitsuak diren ideiak	Oharrak
1	2:05-2:30	Tabacalerako langileen egunerokotasuna	Datu zehatzak aipatzen ditu: soldatak Genero bazterketaren inguruko pertzepzioak helarazten ditu	Emakumezko eskulangileen jarduerak aipatzen dira	Emakumezkoen eta gizonezkoen soldata ezberdintasunak aipatzen dituzte



Bestetik, 3.2 *ikerlanean* ea ikasleek kritikoki aztertzen dituzten gertaera horiei buruzko dokumentu historikoak, interpretazio edo balorazio desberdinak edo aurkakoak dituztenak baloratuko da. Horretarako honako errubrika beteko dutelarik irakasleek:

Irizpidea	0,1 HOBETZEKO	0,25 NAHIKOA	0,35 ONDO	0,5 OSO ONDO	Puntuaketa
Iritzien eta gertaeren ezberdintzea	Nahasketa handia dago kategoria biren artean	Gertaerak eta iritziak ez daude behar bezala ezberdinak	Ondo ezberdinak daude iritziak eta gertaerak	Iritziak eta gertaerak oso ondo ezberdinak eta erlazionatuak daude	/0,5
Iritzi ezberdinen osagarritasuna	Iritzi ezberdinak oso nahasiak azaltzen dira	Iritzi ezberdinen osagarritasunik edo erlazioirik ez da aztertzen	Iritzi ezberdinak nabarmendu dira baina modu isolatuan	Iritzi ezberdinak erlazionaturik eta elkarren osagarri bezala aztertu dira	/0,5
Elkarriketaren sekuentzia-taula	Oso modu nahasian bete da taula	Oso ideia gutxi jaso dira taulan	Taula orokorrean ondo beteta dago baina hutsuneak ditu	Elkarriketan aipatutako ideia ezberdinak modu ordenatuan eta sistematikoan sailkatzen dira	/0,5
Ideen kategorizazioa	Antzeko ideiak kategoria berdinean ez dira aztertzen	Kategoria gutxietan sailkatzen dira ideiak	Orokorrean nahiko ondo kategorizatuta agertzen dira ideiak	Antzeko ideiak oso ondo kategorizatuta daude	/0,5
					GUZTIRA /2

4.3 HIRUGARREN IKASTE-EMAITZA

Definizioa: Donostiako II industrializazio garaian gauzatutako aldagetaren testuinguru politiko, ekonomiko, sozial, urbanistiko, demografiko edo kulturalen inguruko gai baten inguruan lau ikaslez osatutako taldean ikerketa-lana burutzea, kausa aniztasuna eta faktore ezberdinen arteko erlazioa kontutan hartuta.


Jarduerak:

- a) Atariko lan bezala *1.1 hasi aurretik ariketan*, +/- duela 40 urteko argazki bat hartu eta ordutik burututako aldageta urbanistikoak identifikatu beharko dituzte. 1. Jarduera amaitzean, *1.5 oroimen-lekuak* ariketan argazki bera hartu eta denborazkotasuna aztertu beharko dute. Eta argazkia atera zen gaitik gaur egun arte gertatutako aldageta urbanistikoak behatzean.

- b) Atariko lan bezala *1.1 hasi aurretik* ariketan, prozesu historiko bat aztertzeo zein faktore nagusi aztertu behar diren (demografia, eraikinak...) identifikatu behar dituzte. *1.2 testu-in-guru historikoa* ariketa landu ondoren ariketa bera burutuko dute. *1.5 oroimen-lekuak* ariketan enpatia historikoa landu beharko du ikasleak. 1960ko alkatearen karguan jarriko da ikasle bakoitza eta Gipuzkoako ospitalea non kokatu erabaki beharko dute, erabakia defen-datzeo kausa aniztasuna nabarmendu eta horien arteko erlazioak erreparatu beharko dituelarik.
- c) *3.2 ikerketa-lanean*; ikerketa-txostena bete; hauek ikasleek egindako elkarriketako zatiak erlazionatu egingo dituzte eta batez ere ondorioak aterako dituzte.

Ebaluazio tresna:
argazkiaren azterketan zera ebaluatuko da:

Irizpidea	0,05 HOBETZEKO	0,12 NAHIKOA	0,2 ONDO	0,25 OSO ONDO	Puntuaketa
Paisaiaren aldaketa nagusiak	Ez da saiatu argazkiaren garaitik izandako aldaketa nagusienak hautematen	Ez da identifikatu behar bezala argazkia non ateraz en	Paisaian gertatu-tako aldaketa nagusienak identifikatu dira	Paisaian eta hirigintzan gauzatutako aldaketak oso ondo identifikatu dira	/0,25
Aldaketen kausa-ondorioen azalpena	Ez ditu kausa-ondorioak identifikatzen	Aldaketa prozesuaren kausak eta ondorioak identifikatu ditu	Paisaian edo hirigintzan gauzatutako aldaketen kausa-ondorioak identifikatu eta azaldu ditu	Paisaian eta hirigintzan gauzatutako aldaketen kausa-ondorioak identifikatu eta azaldu ditu	/0,25
					TOTAL /0,5



Alkatearen paperean jarriko diren ariketan, testuan honako errubrika beteko dute irakasleek:

Irizpidea	0,05 HOBETZEKO	0,12 NAHIKOA	0,2 ONDO	0,25 OSO ONDO	Puntuaketa
Prozesu historikoaren kausalitate-aniztasuna	Prozesu historikoaren oso ikuspegi sinplea gauzatu da	Faktore oso oinarritzkoak soilik identifikatu dira	Prozesu historikoaren kausa zenbait identifikatu dira	Kausalitate anitzak identifikatu dira	/0,25
Kausa ezberdinen arteko erlazioa	Prozesu historikoaren oso ikuspegi sinplea planteatu da	Oso erlazio sinpleak planteatu dira	Kausa zenbaiten erlazioak nahiko ondo planteatu dira	Kausa ezberdinen arteko erlazioan oso ondo jarri dira	/0,25
Kausa ezberdinen arteko erlazioa	Orainaldian gehiegi oinarritu da	60ko hamarkadatik egungorako denborazkotasuna ez da landu	Faktore gehienak bere garaiko testuinguruan aztertu dira	Enpatia historikoa oso ondo garatu da	/0,25
Ondorioak behar bezala adieraziak	Oso ondorio ahulak planteatu dira	Ondorioak nahiko deskriptiboak dira	Ondorioak nahiko ondo argumentatu dira	Ondorioak oso arrazoituak eta funtsa handikoak dira	/0,25
					GUZTIRA /1



Ikerketa lana honako errubrikaren bidez ebaluatuko da:

Irizpidea	0,1 HOBETZEKO	0,2 NAHIKOA	0,3 ONDO	0,4 OSO ONDO	Puntuaketa
Bilakaera historikoan izandako gertaeren arteko azalpen loturak	Loturak oso nahasiak azaltzen dira	Gertaeren loturak gutxi landu dira	Loturak nahiko ondo planteatzen dira	Bilakaera historikoan izandako gertaeren arteko azalpen loturak ezartzen dira, argudioen bidez	/0,4
Ikergaiaren eta II industrializazioan eragin zuten faktoreen arteko erlazioa	Ikerketa-lana egiterakoan ez da kontuan hartu II industrializazioaren gai orokorra	Ikergaia II industrializazioaren gai orokorrekin nahiko ahul erlazionatzen da	Nahiko ondo erlazionatu da	Erlazioa behar bezala adierazia	/0,4
Gertaera historikoen eta gaur egungo gertaera baten kausa-ondorio erlazioa	Denborazkotasuna nahiko nahasia ageri da	Faktore batzuetan iraganaren eta orainaldiaren arteko erlazioa ongi gauzatu da	Nahiko ondo identifikatu da orduko kausen eta egungo ondorioen erlazioa	Ikerketa-lanean, aztertutako gertaera historiko eta gaur egungo gertaeren kausa-ondorio erlazioa oso ongi identifikatu da	/0,4
Ondorioak	Ez dira ondorioak atera	Ateratako ondorioak nahiko ahulak dira	Lortutako informaziotik nahiko ondorio egokiak atera dira	Lortutako informazioa oso ondo aztertu eta antolatu da eta ondorioak argi eta garbi azaltzen dira	/0,4
Lanaren gidoiarekiko dependentzia	Lanaren gidoitik ez da ateratzen	Gidoitik eta gai topikoetatik ez da irten	Idea berriak lantzen dituzte	Gidoitik harago ideia berri eta argumentatuak erabiltzen ditu	/0,4

**GUZTIRA
/2**

4.4 LAUGARREN IKASTE-EMAITZA

Definizioa: taldean burutu beharreko ikerketa-lana planifikatzea, lanen banaketa egitea, lanaren jarraipena egitea eta ebaluazioa burutzea.

Jarduerak: Honako jarduerak lankidetzat garatzeko baliatuko dira: *2.1 elkarriketa teknikak, 2.2 elkarriketa, 3.1 ikerlana, 3.2 ikerketa-lanean, 4. erakusketa, 5.1 elkar ezagutza, 5.2 laburpenak eta 5.3 partekatzea*. Konpetentzia espezifiko hau *2.2 elkarriketa eta 3.2 ikerketa-lanean* ebaluatuko da.

Ebaluaketa tresna: *2.2 elkarriketa* burutu aurretik, taldeak elkarriketa planifikatu egingo du, ondoko galderei erantzuna emanez:

- Zer egin behar dugu?
- Nola egingo dugu? Zer egingo dugu lehenik? Eta gero?
- Zerekin?
- Norekin?
- Elkarriketak egin aurretik zer jakin behar dut lehenago?
- Lekukotasunak grabatzeko zer jakin behar dut lehenago?
- Zenbat denbora behar dugu elkarriketa egiten?

Behin elkarriketa hori burututa, taldean gogoeta egin eta taldean honako auto-ebaluazio fitxa bete beharko dute *3.3 autoebaluazio* ataleko lehen ariketan:

- Zer ikasi dugu? Zerekin erlazionatzen dugu?
- Zer egin behar genuen hobeto? Zer jakin behar genuen hobeto?
- Zertan hobetu dugu?

3.2 ikerketa-lanean ikerketa hasi aurretik, taldeko lanaren banaketa, kide bakoitzaren egitekoak eta egindakoaren jarraipena egiteko honako taula bete beharko dute taldean.

Data	Kide bakoitzak ekarri beharreko informazioa/lan	Gaur egin beharreko lana	Kide bakoitzak gaur egin beharrekoa	Gaur egindako lana	Epea	Hurrengorako egin/ekarri beharrekoa
	Informazioa bilatu					-Ainhoak mapak bukatu -Mikelek ekonomiako galderak erantzun
	Bakarkako lana egin					
	Taldean hausnartu					

Behin, ikerketa-lana burutu ostean, taldearen lanaren auto-ebaluazio fitxa bete beharko dute 3.3 *autoebaluazio* ataleko bigarren ariketan:

1. Denek parte hartu al dute talde lanean?
2. Egon al da gehiegi esku-hartu duenik?
3. Egon al da taldeko beste kideen parte hartzea blokeatu duenik?
4. Denok batera hitz egiten al zenuten?
5. Denok entzuten al zenioten hitz egiten ari zenari?
6. Egin behar zen lanetik desbideratu al zarete noizbait? Askotan?
7. Zein sistema erabili duzue erabakiak hartzerakoan, kontsentsua, bozka? Egon al da bere iritzia inposatu duenik?
8. Beharrik izan baduzue, eskatu al duzue laguntzarik?
9. Laguntza eskatu dizutenean, lagundu al duzue?
10. Taldeko kide guztien artean erlazio ona izan al duzue?
11. Egin duzuen lanaren gustura al zaudete? Erdietsi al dituzue aurrez ezarritako helburuak?
12. Zeintzuk zailtasun izan dituzue?
13. Nola konpondu dituzue?
14. Hurrengo talde lanerako ondorioak eta iradokizunak.



Irakasleak, aipatu bi ariketen atarikoak eta auto-gogoetak ikusi ostean eta klaseko lanaren jarraipena egin ondoren ondoko errubrika beteko du:

Irizpidea	0,1 HOBETZEKO	0,2 NAHIKOA	0,3 ONDO	0,4 OSO ONDO	Puntuaketa
Denboraren erabilpena	Klaseko denbora alferrik galdu dute, eta gehienetan ez dira lanean aritu	Gehienetan klaseko denbora era egokian erabili dute. Batzuetan despistatuak ibili dira	Gehienetan klaseko denbora era egokian erabili dute lana egiteko	Klaseko denbora ondo aprobetxatu dute. Lanean aritu dira beti	/0,4
Lankidetzatza	Taldean adostutakoa taldekideen batek ez du bete	Denek lan egin dute, baina ez da egon talde koordinaziorik	Taldeko giroa, harremanak eta elkarlana egokiak izan dira	Elkarlana era egokian egin dute. Lan banaketa errespetatu dute, eta taldekideen ateko koordinazioak ongi funtzionatu du	/0,4
Planifikazio taula eta lanen esleipena	Planifikazio taula ez dute behar bezala bete	Planifikazioko puntu nagusienak erreparatu dituzte	Planifikazioa zehaztua aurkeztu dute baina ez dute bete	Planifikazioa ondo zehaztua aurkeztu dute eta planifikazio hori bete egin dute	/0,4
Lanen esleipena	Lanen esleipena ez da egin	Gutxi batzuek hartu dute lan karga	Lanen esleipena egin da eta gutxi gorabehera bete da	Lanen esleipena bakoitzaren gaitasunen arabera egin da eta horren arabera bete da.	/0,4
Lana epean entregatzea	Ez du epean entregatu			Epean entregatu du	/0,4
					GUZTIRA /2

4.5 BOSGARREN IKASTE-EMAITZA

Definizioa: klasean eta Poznan-eko Debinka ikastetxeko (Polonia) eta Kranj-eko Gimnazija Kranj (Eslovenia) ikastetxeko ikasleei aurrez ikertutako gaia aurkeztea ingelesez, ideiak argi eta ondo egikarrituta helaraziz eta IKT tresnak erabiliz.

Jarduerak: Honako jarduerak mintzarena garatzeko baliatuko dira: *3.2 ikerketa-lanean*, *5.1 elkar ezagutza* eta *5.3 partekatzea*. Konpetentzia espezifiko hau *3.2 ikerketa-lanean* ebaluatuko da, hain zuzen ere klasean egindako lanaren aurkezpena egitean.

Ebaluaketa tresna: taldeko aurkezpenak egitean klaseko beste ikaskide-taldeek ebaluatuko dituzte. Horretarako *3.3 autoebaluazio* ataleko hirugarren ariketan gehitzen da autoebaluaketa errubrika.

Irizpidea	0,25 HOBETZEKO	0,75 NAHIKOA	1 ONDO	0,15 OSO ONDO	Puntuaketa
PPT baliabidea Informazioa	Informazioaren aukeraketa erabat desegokia da	Informazio gehiegi agertzen da, entzulearen kalterako	Informazio nagusia agertzen da, baina bestelakoa ere	Lan idatzian agertzen den informazio nagusia ondo isladatzen du eta agertzen diren argazkiek eta bideoek lana aberasten dute	/0,15
PPT baliabidea Forma	Diapositibak beteegiak daude, edozein moduz beteta. Ikusi behar dena ez da ikusten	Diapositibak aberasten ez dituzten irudiak azaltzen dira	Zein informazio, zein diapositibatan ez dago ondo pentsatua	Diapositibak sinpleak eta erakargarriak dira, argi azaltzen da informazioa. Diapositibaren diseinua egokia izan da	/0,15
PPT baliabidea Sormena (irtenbideak)	Ez da ideia originalik agertzen	Ideiaren bat originala da, baina gehienak zuzenean informaziotik hartuak	Agertutako ideia gehienak originalak dira, batzuk informaziotik hartuak	Ezarritako ideiak originalak dira, informazioan ez zeudenak	/0,15





Irizpidea

0,25
HOBETZEKO0,75
NAHIKO1
NAHIKO0,15
NAHIKO

Puntuaketa

Ahazkotasuna
Aurkezpena

Egindako lana ez dute era egokian aurkeztu, eta ez dute taldekide guztiek informazio eman. Landu gabea dirudi

Egindako lana era egokian aurkeztu dute taldekide guztiek. Multimedia dagoena azaldu dute. Aurkezpenak gehiegi landu gabe dirudi

Egindako lana era egokian aurkeztu dute taldekide guztiek, multimedia informazio gehiago erantsiz

Egindako lana era erakargarrian aurkeztu dute taldekide guztiek, multimedia ez dagoen informazioa erantsiz atal guztietan. Galderak erantzuteko gai izan dira

/0,15

Ahazkotasuna
Aurkezpenaren prestaketa

Ez da prestatu eta maiz ez da jarraitzen jakin

Ez da behar bezala prestatu, batzuetan ez da ulertu

Prestatu da, baina ez gehiegi, buruz ikasita aurkeztu da eta batzuetan trabatuz

Oso ongi prestatu da, adibideak eta guzti

/0,15

Ahazkotasuna
Jarrera

Ez da aurkeztea lortu

Ez da seriotasunez aurkeztu, imintzioak eginez

Batzuetan ez da seriotasunez aurkeztu

Seriotasun handiarekin aurkeztu da

/0,15

Ahazkotasuna
Lexikoa

Ez da batere egokia izan (erdarakadak, errepikapenak...)

Ez da oso egokia izan

Egokia eta zehatza izan da

Oso egokia eta zehatza izan da

/0,15

Ahazkotasuna
Aurkezpenaren denbora

Motzegia

Luzeegia

Egokia izan da

Oso egokia izan da

/0,15





Irizpidea

0,25
HOBETZEKO0,75
NAHIKO1
NAHIKO0,15
NAHIKO

Puntuaketa

Ahazkotasuna

Ahoskera

Ez du argi hitz egin eta/edo entzuleriari begiratu gabe. Ez du gai aldaketarik ez eduki funtsezkorik azpimarratzen

Nahiko argi hitz egiten du, entzuleriari begira, batzuetan gai aldaketak azpimarratzen ditu, eta zenbait eduki funtsezko intonazio eta hizkuntza egokia erabiliz adierazten ditu

Argi hitz egiten du, entzuleriari begira, gai aldaketak azpimarratzen ditu, eta eduki funtsezko gehienak intonazio eta hizkuntza egokia erabiliz adierazten ditu

Argi hitz egiten du, entzuleriari begira, gai aldaketak azpimarratzen ditu eta intonazio eta hizkuntza egoki erabiliz, eduki funtsezkoenak adierazten ditu

/0,15

Ahazkotasuna

Talde kudeaketa


Aurkezpina egin dute, baina bakoitzak berea soilik aurkeztu du, eta ez du ezagutzen besteena. Aurkezpina ez dago batere orekatua hiruren artean

Aurkezpina egin badute ere, beren arteko lana ez dago era egokian banaturik. Aurkezte bakoitzak bere lana egiten du, baina ez du ezagutzen besteena. Aurkezpina ez dago orekatua, eta kideren batek besteek baino ekarpen handiagoa egin du

Aurkezpina nahiko era egokian egin dute, eta bakoitzaren papera nahiko ongi definitua dago. Aurkezte bakoitzak bere lana era egokian aurkeztu du. Aurkezpina orekatua dago hiruren artean

Aurkezpina era egokian egin dute, eta bakoitzaren papera ongi definitua dago. Aurkezte bakoitzak bere lana era egokian aurkeztu du, baina ezagutzen du besteena. Aurkezpina orekatua dago hiruren artean

/0,15

GUZTIRA
/1,5

4.6 SEIGARREN IKASTE-EMAITZA

Definizioa: jasotako informazioarekin (alde batetik garaiko testuingurua irudikatzen duten material higikorrek (adb. etxe-tresnak) eta bestetik dokumentazioarekin (bideo grabazioak, jatorrizko agiriak...) sormenezko lana egitea eta Lizeoaren egunerako erakusketa bat antolatzea.

Ebaluazio tresna: ikaste-emaiza hau ikasleen motibazioa lantzeko garatuko da, dena den, haien sorkuntza kompetentzia ez da ebaluatuko.

5. Antolaketa

Antolaketari dagokionean, ikasleek haien ikerketa proiektuak lauко talde kooperatiboetan burutu dituzte. Ikasketa kooperatiboa ikasle talde txikien (osaketa heterogeneoak gehienetan, errendimenduari eta ahalmenari dagokienez) erabilpen didaktikoa da eta, jardueraren egitura horren bitartez, honako hauek bilatzen dira: berdintasuneko parte-hartzea ahalik eta gehien ziurtatzea (taldekide guztiek parte hartzeko aukera berdina izan ditzaten) eta berorien arteko aldibereko elkarreragina indartzea, taldean lan egiten ikasteaz gainera, taldekide guztiek proposatutako edukiak ikas ditzaten, norberaren ahalmenak neurri gorenera eramanez.



Baliabideei dagokionean, Google Sites tresna erabiltar lan-koadernoak sortu da, euskarri digitalan. Aipatu lan-koadernoak ondoko estekan dago eskuragarri: <https://sites.google.com/site/semsdonostia/>. Google Sites-a bi arrazoiengatik erabili da: alde batetik ikasleen kompetentzia digitalak garatzeko bidean beste pauso batzuk emateagatik eta euskarri ezberdineko baliabideak (bideoak, irudiak, aurkezpen artxiboak, testuak ...) biltzeko tresna aproposa delako.

Sekuentzia didaktikoaren antolaketari dagokionean, ondoko faseak, jarduerak eta saioak landu dira.

0. ATAZA: PROIEKTUAREN HELBURUAK ETA AURREZAGUTZAK

Saioa	Jarduera	Azalpena eta baliabideak
0. saioa	0.1 Aurkezpena	Biltokian, DBH4 osoa, irakasle guztiekin. https://sites.google.com/site/semsdonostia/home/sem-s
1. saioa	0.2 Helburuak	- Proiektuaren aurkezpena klasean: helburu pedagogikoak eta metodologia: https://sites.google.com/site/semsdonostia/helburu-pedagogikoak-eta-metodologia ; https://sites.google.com/site/semsdonostia/home/ebaluazi-o-irizpideak Baliabideak: arbela digitala
2. saioa	0.3 Ikaste-koadernoa I	- Gmail kontua sortu - Ikaste-koadernoa zer den azaldu eta sortu (Google Sites bidez): https://sites.google.com/site/semsdonostia/google-sites-tutoriala Baliabideak: arbela digitala, eramangarriak
3. saioa	0.3 Ikaste-koadernoa II	- Google Sites sortu (II) Baliabideak: arbela digitala

1. ATAZA: KONTZEPTU OROKORRAK

Saioa	Jarduera	Azalpena eta baliabideak
4. saioa	1.1 Before starting	Aurrezagutzak: https://sites.google.com/site/semsdonostia/1-1-hasi-aurretik Baliabideak: argazkien kopiak, arbela digitala, eramangarriak...
5. saioa	1.2 Historical context	Testuinguru historikoa https://sites.google.com/site/semsdonostia/1-2-testuinguru-historikoa Baliabideak: diapositiben kopiak, eramangarriak,...
6. saioa	1.3 Memory	Memoriaren kontzeptua: https://sites.google.com/site/semsdonostia/1-3-oroimena Baliabideak: hari mataza, eramangarriak Lekua: liburutegia





Saioa	Jarduera	Azalpena eta baliabideak
7. saioa	1.4 History and memory	· Historia eta memoriaren arteko desberdintzeak: https://sites.google.com/site/semsdonostia/1-4-oroimena-eta-historia · Baliabideak: arbela (azalpen teorikoak), arbela digitala (bideoak), eramangarriak
8. saioa	1.5 Realms of memory I	· Donostiako II Industrializazioko memoria lekuetara bisita bizikletaz: https://sites.google.com/site/semsdonostia/1-5-oroimen-lekuak
9. saioa	1.5 Realms of memory II	· Bisitaren azterketa: https://sites.google.com/site/semsdonostia/1-5-oroimen-lekuak · Baliabideak: arbela digitala, GoogleEarth aurkezpena (irteerako ibilbidea), eramangarriak, 1.1 jarduerako argazkien kopiak...

2. ATAZA: ELKARRIZKETAK

Saioa	Jarduera	Azalpena eta baliabideak
Sesión 10	2.1. Interviewing techniques	· Elkarrizketa teknikak: https://sites.google.com/site/semsdonostia/2-1-elkarrizketa-teknikak · Baliabideak: arbela digitala
Sesión 11	2.2. Interviewing	· Elkarrizketak: https://sites.google.com/site/semsdonostia/2-2-elkarrizketaren-proba · Baliabideak: arbela, taldeka elkarrizketak baloratzeko taula (fotokopia)



3. ATAZA: IKERKETA

Saioa	Jarduera	Azalpena eta baliabideak
12. saioa	3. Ikerketa I	· Ikerketa lana: Gizarte aldaketak https://sites.google.com/site/semsdonostia/3-1-ikerla · Taula pertsonala bete · Baliabideak: koadernilloa
13. saioa	3. Ikerketa II	· Ikerketa lana: Gizarte aldaketak https://sites.google.com/site/semsdonostia/3-1-ikerla · Taula pertsonala betetzen bukatu · Taldeka galdetegia prestatu · Rekursos: koadernilloa
14. saioa	3. Ikerketa III	· Ikerketa lana: Hiria · Baliabideak: koadernilloa, eramangarriak, bibliografiako liburuak (karritoan) · Etxean: elkarriketak · Baliabideak: prestatutako galdetegia, elkarriketzen taula (Docs)
15. saioa	3. Ikerketa IV	· Ikerketa lana: Hiria · Rekursos: koadernilloa, eramangarriak, bibliografiako liburuak (karritoan) · Etxean: elkarriketak · Baliabideak: prestatutako galdetegia, elkarriketzen taula (Docs)
16. saioa	3. Ikerketa V	· Ikerketa lana: Hiria · Baliabideak: koadernilloa, eramangarriak, bibliografiako liburuak (karritoan) · Etxean: elkarriketak · Baliabideak: prestatutako galdetegia, elkarriketzen taula (Docs)
17. saioa	3. Ikerketa VI	· Ikerketa lana: Hiria · Baliabideak: koadernilloa, eramangarriak, bibliografiako liburuak (karritoan) · Taldean erabaki zein elkarriketa filmatu behar diren
18. saioa	3. Ikerketa VII	· Ikerketa lana: Hiria · Baliabideak: cuadernillo, libros de la bibliografía (en el carrito) · Elkarriketak filmatuta





Saioa	Jarduera	Azalpena eta baliabideak
19. saioa	3. Ikerketa VIII	· Ikerketa lana: Hiria · Baliabideak: koadernilloa, eramangarriak, bibliografiako liburuak (karritoan) · Elkarriketak filmatuta
20. saioa	3. Ikerketa IX	· Ikerketa lana: Hiria · Baliabideak: koadernilloa, eramangarriak, bibliografiako liburuak (karritoan) · Elkarriketak filmatuta
21. saioa	3. Ikerketa X	· Ikerketa lana: Gizarte aldaketak - Sekuentzia taula osatu · Baliabideak: koadernilloa, eramangarriak, elkarriketen taulak (docs), elkarriketa filmatuak
22. saioa	3. Ikerketa XI	· Ikerketa lana: Gizarte aldaketak - Sekuentzia taula osatu · Baliabideak: koadernilloa, eramangarriak, elkarriketen taulak (docs), elkarriketa filmatuak

4. ATAZA: MEMORIAK PARTEKATUZ

Saioa	Jarduera	Azalpena eta baliabideak
23. saioa	4.1. Komunikazioa beste ikastetxeekin	· Lehen Komunikazioa prestatu: https://sites.google.com/site/semsdonostia/5-jarduera · Baliabideak: gidoia, koadernilloa, arbela digitala



5. ATAZA: SORMENEZKO LANA

Saioa	Jarduera	Azalpena eta baliabideak
24. saioa	5. Erakusketa	Erakusketaren prestaketa
25. saioa	5. Erakusketa II	Erakusketaren prestaketa
26. saioa	5. Erakusketa III	Erakusketaren prestaketa
27. saioa	5.2 Ondorioak	Ikerketaren ondorioak Power Point aurkezpena prestatu · Baliabideak: gidoia, koadernilloa, eramangarriak
28. saioa	5.3 Ondorioak	Power Point aurkezpena prestatu · Baliabideak: gidoia, koadernilloa, eramangarriak
29. saioa	5.4 Ondorioak	Ikerketaren ondorioen ahozko aurkezpena · Baliabideak: arbela digitala, Power Point-a